Memoria Partekatuak



CEA(R) EUSKADI
Euskadiko **Errefuxiatuen Laguntzarako** Batzordea

Argitalpen hau Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeak (CEAR-Euskadi) egina da, proiektu honen baitan: Erbesteko memoriak, memoria partekatuak: memoriaren berreskurapena eta pertsona errefuxiatuen giza eskubideen defentsa Bizkaian.

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko **Errefuxiatuen Laguntzarako** Batzordea

Laguntzailea:

Gernika Gogoratuz
Bakearen Aldeko Aztertegia
Centro de Investigación por la Paz
Peace Research Center

María Fernanda Mejía da txosten honen egilea, eta laguntzaile hauek izan ditu: Sofía Abaitua, Itziar Caballero, Beatriz de Lucas eta Ane Garay (CEAR-Euskadi), eta María Oianguren (Gernika Gogoratuz).
Argazkiak: CEAR Comisión Española de Ayuda al Refugiado

Argitalpenaren data eta lekua: 2017, Bilbo.

Euskaratzea: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Diseinua eta maketazioa: Erreka Multimedia S. Coop.

Finantziazioa:

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Victimas y Derechos Humanos

Argitalpen hau Creative Commons lizentziapean dago

CC BY NC SA

Ikerketa honetan parte hartu duten gizon-emakume guztien eskuzabaltasuna eskertu nahi dugu, erbestealdian bizi izandako beldurrak eta oinazeak, itxaropenak eta indarrak azaldu baitizkigute. Haiek gabe ezin izango zen lan hau burutu. Eskerrik asko, Amina, Igor Palomero, Augustine, Ane Albizu, Gustave Kiansumba, Arantzazu Ametzaga, Leila, Kepa eta Josu Atxurra, Hady Traore, Ana Mary Ruiz, Samuel, Ainara Unamuno, Rosario Vásquez, Maitena Jauregui eta Amparo Pimiento. Haien istorioen xehetasun bereziek bizitasuna eman diote kontakizunari.

Halaber, eskerrak "Memoria partekatu" hauek osatzeko topaketen, elkarrizketen eta hausnarketa kolektiboen prozesuan lagundu diguten erakunde eta pertsona guztiei –bereziki, Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Aztertegiari eta bertako zuzendari María Oiangureni–, bai eta Getxoko Udalaren Immigrazio eta Kultura artekotasunaren arloari ere, izandako konpromisoagatik. Halaber, eskerrak parte hartu duten CEAR-Euskadiko lagun guzti-guztiei, bereziki Sofía Abaituari.

Sarrera **5**

1. Pertsona erbesteratu eta errefuxiatuen egoerak - zer gertatzen da? **9**

1.1. Pertsona errefuxiatuak: 11
1.2. Pertsona erbesteratuak eta haien ondorengoak 16

2. Erbestearen eraginak - Zer ondorio dakarzkio erbesteratu beharrak norberaren bizitzari? **21**

2.1. Ondorio pertsonalak 23
2.2. Ondorioak familian 29
2.3. Ondorioak pertsonaren nortasunean 32
2.4. Ondorioak bizitzaren gaineko ikuskera filosofiko-existentzialean 37
2.5. Ondorio sozialak 38

3. Egoerei aurre egiteko estrategiak – Zer estrategiak darabiltzate pertsonek, hainbat mailatan, egoerei aurre egin eta egoera horiek min gutxiagoz bizitzeko? . **41**

3.1. Estrategia pertsonalak / indibidualak 43
3.2. Familiaren babesa 47
3.3. Laguntza-sareak. 47
3.4. Informatzeko aukerak 50
3.5. Eskubideak eskuratzeko aukerak. 50

4. Erreparazio-eskaerak – Zerk laguntzen dio pertsonari kolpeei aurre egiten eta bizitza berregiten? **53**

4.1. Jendeak harrera ona egitea 55
4.2. Gizartearen aitortza (bizitako historiaren aitortza; gatazkak daudela aitortzea; gatazkak eta horien arrazoiak ikusaraztea). 55
4.3. Aitortza juridikoa eta instituzionala: bizi-proiektuak berregiteko babes eta laguntza soziala 57
4.4. Eskubideak eskuratzeko aukerak. 58

Asiloa, itxaropenerako itsasontzia. **61**

SARRERA

Asilo-eskubidea ihes egitea da.

Ihes egitea deserrotzea da, justiziaz dagokigun hori, geure bizitza, galtzearen mina. Amildegira jauzi egitea da; badakizu nondik zatozen, baina ez non eroriko zaren. Alde egin beharra duzu, desagertutakoen zerrenda gizenduko ez baduzu.

Ihesa itxaropenarena da, bizi-ametsak dira. Txoko baten bilaketa da, non bizi ahal izango duzun.

Asilo-eskubidea berriro jaiotzea da, galdu duzun hori topatzea. Bermeo nire jaioterria dela diot han jaio nintzelako berriro; Txilen geratu izan banintz, ezingo nukeen kontatu.

Sarri askotan, kartzelatu egiten dute asiloa; jendeari babesa eman ordez, giltzapean sartzen dituzte. Beste toki batera heltzen zarenean, ingurura begiratu, eta konturatzen zara ez zarela inor. Ez daukazu harrera-sarerik zuri laguntzeko. Tiraniari ihes egitea lortu duzu, baina izuaren menpe bizi zara, izuturik egiten duzu amets.

Asiloan, garrantzitsuena jendearen berotasuna da, harrera eta besarkada.

Asiloa itxaropenerako itsasontzia da.

Rigoberto Jara
"Asiloa: itxaropen eskubidea", CEAR-Euskadi, 2007.

NOR GARA

Dokumentu hau "Erbesteko memoriak, memoria partekatuak: memoriaren berreskurapena eta pertsona errefuxiatuen giza eskubideen defentsa Bizkaian" ekimenaren barruan egin da, eta Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordeak (CEAR-Euskadi) koordinatu du, Gernika Gogoratuz fundazioarekin lankidetzan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoarekin.

CEAR-Euskadik 20 urte baino gehiago daramatza nazioarteko babesa behar duten edota baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsona errefuxiatuen, lekualdatuen, aberrigabeen eta etorkinen giza eskubideak eta garapen osoa babesten eta sustatzen.

Bakearen aldeko azterdegia da Gernika Gogoratuz, eta 1987an sortu zen, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenean. Azterdegiaren helburua da *contribuir, bake bidezko eta askatzaile bat erdiesten laguntzea munduan eta Euskal Herrian, eta Gernika hiria eta/edo sinboloa izatea horren bitartekoa, hausnarketa zientifikoak sortutako edo babestutako ekarpenak baliatuta.*

ZERGATIK MEMORIA PARTEKATUAK?

Gizakiaren historia osoan zehar eman dira desplazamendu behartuak. Garai batean, ez aspaldi, milioika pertsona joan ziren espainiar estatutik eta Euskaditik ihesi, eta orduko arrazoi berberek bultzatuta, beste hainbat pertsonak ere, gaur egun, beren biziak, askatasunak, segurtasuna eta osotasuna babestea bilatzen dute. Aske bizi nahi dute, indarkeriarik eta miseriarik gabe.

Ihes egin beharrean gertatu ziren, beren herria, familia eta gainerako dena uztera behartuta, bizirik jarraitzeko. Bizipen bera izan dute pertsona horiek guztiek: erbesteratzea. Pertsona askotarikoak dira, garai, jatorri eta asmo denetarikoak, baina oso antzekoak dira beraien bizipenak eta oroitzapenak. Euskadira iritsitako pertsona errefuxiatuak dira, basakeriatik ihesi, gosea eta heriotza-mehatxuak atzean utzi nahian. Gerra Zibiletik eta frankismotik ihesean erbesteratu diren pertsonak dira. Batzuk ez ziren inoiz ere bueltatu, beste batzuk, berriz, urte asko igaro ondoren itzuli ziren. Erbestean, urrun jaiotakoak izan arren, bizipen horien ondorioak bizi izan dituzte pertsona horien seme-alabek eta bilobek. Guztiek partekatzen dute erbesteko memoria. Aldeak alde, guztiek lortu dute bizirautea. Bizirik jarraitu dute, antzeko emozioak, beldurrak, ikaskuntzak eta itxaropenak izan ondoren. Pertsona horien adore, indar eta bizi-gogo handiak gogoratu eta nabarmendu behar ditugu, ihesera behartu zituzten arrazoiak gogoan izateko eta beren eskubideak berma daitezen exijitzeko.

Erbesteak, noski, maila guztietan erasaten die pertsonen eta herrien bizitzari. Deserrotze etengabea dakarkie. Pertsona erbesteratu eta errefuxiatuen bidean, malenkonia ageri da bidelagun, barru-barruko tristura. Atzean geratzen dira lekuak, usainak eta koloreak, pertsonak eta komunitateak… Atzean geratzen dira bizi-proiektuak, nonbaiten lasai bizitzeko konfiantza. Aldatu egiten da mundua ikusteko era.

Gogoan izan behar da erbestearen bizipena ez dela pertsona desplazatuaraziarena soilik, bizipen horren partaide baitira hura hartzen duten pertsonak eta erbesteratuarekin espazioa, eskola, lana, auzoa, mendiak eta hondartzak partekatzen dituzten pertsonak. Mundu hau hobetzeko itxaropena pizten da pertsonak gizatasunez hartzen ditugunean, bide horretatik desager baitaiteke, noizbait, asilo-eskubidea, haren beharrik ez dugulako. Mundu honen basakeriei aurre egitea da, samurtasunaren eta besarkadaren bidez. Erbestea, hortaz, ez da estatu batek emandako babesa bakarrik. Bizi-ametsa da, eta bizirik jarraitzea, jazarpenak norberak nahi duen lekuan bizitzen uzten ez duen arren.

ZER-NOLAKO EKIMENA IZAN DA?

Memoria Partekatuak ekimenaren helburu nagusia izan da identifikatzea zer analogia dauden egungo erbesteratzearen eta Gerra Zibileko eta frankismoko euskal erbesteratzearen artean, eta, bereziki, emakumeek egindako ekarpenak ikusaraztea. Memoria partekatu horiek berreskuratuta, aurreko hamarkadatan bizitakoa gogoratuko dugu, bizipenean elkartzen gaituzten gauzak bilatuko ditugu, eta gure historiatik ikasiko dugu, gaur egun hona iristen zaizkigun pertsonei harrera hobea egiteko.

IKERLANA:

Argitalpen hau osatu da 2015ean egindako ikerketa-prozesu baten harian, eta pertsona errefuxiatu eta erbesteratuekin hainbat lantegi eta elkarrizketa egin ondoren. Euskal Autonomia Erkidegoan errefuxiatutako pertsonen eta frankismoan erbestera joan behar izan zuten pertsonen lekukotzak bildu ziren, eta horiek guztiek bizitakoaren arteko analogiak identifikatu ziren. Psikologia positibo integratzaileak proposatzen duen ikuspegi psikosoziala erabili zuen ikerlanak. Positiboa da, errealitatearen gaineko diagnostikoak eta interbentzioak egiten dituenean, ez dielako ahultasuna dakarten faktoreei bakarrik begiratzen; izan ere, hasiera-hasieratik behatzen du, era berean, babes eta ongizateko faktoreen presentzia (egoerari aurre egiteko eta erresistentziako estrategiak, trauma ondorengo hazkuntza-prozesuak eta antzekoak), eta ez arazoei erantzuteko modua direnean soilik. Integratzailea da, pertsonen eta beren egoeraren konplexutasunari erreparatzen dielako, eta azalpen-eredu bat baino gehiago darabiltzalako bere azterketa- eta intebentzio-jardunean.

Bi lantegitan oinarritu zen ikerketa-lana, eta lantegi horietan parte hartu zuten zenbait herrialdetako (Kolonbia, Mali, Kamerun, Boli Kosta, Kongo eta Euskadiko) 5 emakumek eta 5 gizonek. Bizitzan zehar bizitakoak eta, bizipen mingarriak bizi izan dituztenean, goiari eusteko eta egoera horiei aurre egiteko baliatu dituzten indarguneak landu ziren lantegi horietan.

Lantegietan bildutako informazioa erabili zen elkarrizketa sakonen gidoia prestatzeko, eta honako analisi-elementu hauek baliatu ziren:

a) Gertatutakoa kontatzea: zer gertatu zen?
b) Inpaktuak: gertatutako horrek zer-nolako eragina izan zuen guregan?
c) Aurre egiteko modua: zer egin dugu aurrera egiteko?
d) Erreparazio-eskaerak: zerk dakarkigu erreparazioa? Zer egin daiteke berriro gerta ez dadin?

Guztira, 15 elkarrizketa egin ziren: 10 emakumeri eta 5 gizoni. Euskadin errefuxiatuta daude, gaur egun, horietako 8, eta Euskaditik erbesteratu ziren, bere garaian, horietako 7. Elkarrizketatuek emandako informazioa eta haien bizipenak baliatu dira erbesteratzearen gainean aurkezten dugun analisi hau egiteko, aurrez adierazi ditugun lau elementuetan oinarrituta.

Adierazi beharrekoa da, gaur egun Euskadin babestu nahian dabiltzan pertsona batzuek bizi duten egoeraren ondorioz, izen fiktizioak erabili ditugula zenbait pertsonarekin, beren segurtasuna zaintzeko.

Beren bizipenak kontatu dizkigute ikerlan honetan parte hartu dutenek, zergatik egin behar izan zuten ihes, zer sentitu zuten eta zer sentitzen duten oraindik. Beren bizitza nola aldatu zen eta nola dauden esan digute, nola lortu zuten edo lortu duten egoera gaitzari aurre egitea eta zerk lagundu dien aurrera egiteko bidean. Elkarrizketatuek bat egiten dute beren bizipenen eta oroitzapenen alderdi askotan, baina beste batzuetan desberdinak direla dirudi. Eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen honetan lagundu duten pertsona guztiei, eskuzabalak izan direlako beren historiak eta bizipenak partekatzean. Beraien kontakizunak eta ahotsak funtsezkoak izan dira zuzen-zuzenean ezagutzeko erbestearen, asiloaren eta deserrotzearen memoria konpartituak. Minaren eta sufrimenduaren berri ematen dute memoria horiek, baina baita, egoerak egoera, bizitzeko kemenaren eta aurrera egiteko indarraren berri ere.



I. PERTSONA ERBESTERATU ETA ERREFUXIATUEN EGOERAK ZER GERTATZEN DA?

1.1. PERTSONA ERREFUXIATUAK:

AMINA,
EMAKUME SAHARARRA, 43 URTEKOA, IDAZLEA (TINDUFEKO KANPAMENDUAK, ALJERIA)[1].

Kanpamentuetatik irten zen 10 urteko adinetik 18 urte bete arte, Sahara eta Kubako gobernuen artean sortutako ikasketa-beken programa batean sartu ondoren. Kuban egin zituen zortzi urte horietan, ez zen kanpamentuetara bueltatu eta zuen bere familia ikusi, ez zuelako bidaia hori egiteko modurik. Euskadira etorri zen 19 urterekin, kazetaritza ikastera. Kazetaritza-titulua eskuratu zuenean, Tindufeko kanpamenduetara itzuli zen Amina. Hala ere, lanik eta baliabide ekonomikorik gabe zegoenez, erabaki zuen bere bizilekua Euskadin finkatzea behin betiko, eta familia bat osatu du bertan.

> "Eskola-materialik eta bestelakorik ez dagoenez, haurrek kanpora irten behar dute ikastera. Horregatik joan nintzen Kubara ikastera. [...] Hara iristen den laguntza humanitarioak eta Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariak emandako laguntzak ez ditu asetzen familien beharrizan guztiak. Janariak iris daitezke, baina arropa nahikorik ez. Ahal duten moduan bizi behar dute familiek. Horretatik emigratu behar du kanpamenduetako familia ia guztietako kideren batek..."

GUSTAVE KIANSUMBA,
KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOKO GIZONEZKOA, 42 URTEKOA, AKTIBISTA POLITIKOA.

Ikasle-garaian aktibista eta lider izandakoa, alderdi sozialistako militantea zen, Mobutu diktadorearen aurkako oposizioan. Zenbait alditan atxilotua izan ondoren, bere herrialdetik irten zen epe laburretarako, harik eta, azkenik, Kamerunera bidaiatu zuen arte 2001ean, berriro ez itzultzeko. Bisarekin iritsi zen herrialde horretara, baina agronomia-ikasketekin jarraitzeko asmo sendoa zuen arren, ezin izan zuen ikasteko beka bat lortu, eta baliabide ekonomikorik ez zuenez, egoera administratibo irregularrean gertatu zen, bai Kamerunen, bai, gerora, Afrikako beste herrialde batzuetan, zortzi urtez osatu zuen ibilaldian (2001etik 2009ra): Kamerun, Nigeria, Txad, Libia, Aljeria, Mali eta Maroko. Ibilbide luze horretan, Libiatik, Aljeriatik eta Marokotik deportatu zuten Gustave.

> "Bueltan bidaltzen zaituzte, nor zaren eta nongoa zaren jakin gabe, inolako babesik gabe" [...].Deserturaino, Mauritania eta Aljeriatik gertu. Han ez dago bizirik, etxerik, arbolarik; hondarra soil-soilik. Eta haurrarekin utzi gintuzten, haurtxoekin. Han, 200 pertsonatik gora ginen, [...] gizonak, emakumeak, haurrak. Gogoan dut, haurtxo bat hiltzen ikusi nuen han. Haurtxo bat ehortzi dugu.."

Esaten du asko ikasi duela bere ibilbide gogorrean, eta, Marokon izan zen garaian, harremanetan izan zela erakunde humanitarioekin, giza eskubideen defentsan aritzen diren elkarteekin eta Saharaz azpiko pertsona migratzaileen eskubideen defentsarako erakundeekin.

1 Tindufeko kanpamenduak Aljeriako hego-ekialdean daude, eta saharar errefuxiatu ugari biltzen ditu. Errefuxiatu horiek 1975 eta 1976 urteen bitartean ihes egin zuten Marokotik, tropa marokoarrek eta mauritaniarrek erabilitako indarkeriaren ondorioz. Errefuxiatuen hirugarren belaunaldia osatzen dute kanpamenduetan bizi diren zenbaitek, eta ez dira inoiz ere kanpamendu horietatik kanpo izan. Kanpamenduetan, ezinbestekoa dute Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren, gobernuz kanpoko erakundeen eta nazioarteko beste erakunde batzuen laguntza.

Europara iristeko helburua hartuta, lau aldiz saiatu zen Melillako hesia gainetik igarotzen, eta hiru aldiz saiatu zen itsasoan igeri eginez igarotzen. Orduan jakin zuen zer den bero-beroan bueltaraztea[2]. Azkenik, 2009an, patera batean iritzi zen Espainiara, trafikatzaile marokoarrek eta espainiarrek osatutako sare baten eskutik. Ondoren, 30 egun eman zituen Atzerritarrak Barneratzeko Zentro batean (ABZ)[3].

LEILA,
KURDINSTAN IRANDARREKO EMAKUMEA, EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ETA HERRI KURDUAREN ALDEKO AKTIBISTA.

Bere aktibismo politikoaren ondorioz, erregimen irandarrak jazarri egin zituen Leila eta bere etxekoak. Jazarpen horren ondorioz, eta bere senideen bizia babesteko asmoa hartuta, bere 6 urteko semearekin espainiar estatura ihes egitea erabaki zuen, bere senarrarekin elkartzeko (Madrilen bizi zen, errefuxiatu-izaerarekin).

Hortik aurrera, Leilak eta bere semeak bizipen gogorrak bizi izan zituzten bidaian. Hilabeteak egin zituzten egoera horretan, eta indarkeria pairatu zuten, bai pertsonen salerosketan diharduten sareen aldetik, bai mugaldetako agintari batzuen aldetik. Adierazi du behin baino gehiagotan ikusi dituela arriskuan bere burua eta bere semea; esaterako, pertsona errefuxiatuen zentro batean izan zirenean, Europa ekialdeko hiri batean. Esaten du adingabekoen ardura duten emakumeak egoera ahulean izaten direla, oso bidaia luzea egin behar baldin badute.

Bidean bizi izan zuten egoera latz eta bortitz horiek luzaro kaltetu izan ditu Leilaren eta bere semearen osasun fisikoa eta psikologikoa.

> "Mafiak ez zigun bakean uztean, bazekielako gure familiek ez zigutela egoera horretan utziko. Bazekiten gehiago estutu gintzaketela. Egunero izaten genituen haien mezuak, dirua ordaindu behar genuela esaten ziguten. Mezu horietako batean, esan zidaten nire senarrak dirua ordaindu ezean, azidoz erreko gintuztela eta inork ez gintuela hor bilatuko, inork ez zuela jakingo erre gintuztenik. Ez nekien zer egin. Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren bulegoko abokatu batengana joan nintzen, eta mezua eman nion. Hark lagundu zidan.
>
> Bidean, semea galtzeko zorian izan nintzen behin baino gehiagotan, eta oso gogorra izan zen hori niretzat. Gauez ezin nuen lorik egin, goizaldean oihu egiten nuen, amesgaiztoak izaten nituen, hil egiten nindutela amesten nuen, erre egiten nindutela, ibai batean nengoela eta urak eramaten zuela nire semea… Amets gaizto asko ziren, eta ez ninduten bizitzen uzten"

Estatu espainiarrera iritsi eta hiru hilabetera eskuratu zuen Leilak pertsona errefuxiatuaren estatutua.

2 Norbait legez kontra entregatzea da, eta Espainiako Gobernuak "bero-beroan edo momentuan bueltaraztea" eufemismoa darabil jokabide hori izendatzeko. Estatuko segurtasun-indarrek eta -kidegoek, egitezko bidea erabilita, agintari marokoarrei entregatzen dizkiete subiranotasun espainiarra duten eremuetan atzematen dituzten pertsona atzerritarrak, baina legez araututa dagoen prozedura eta nazioarteko bermeak bete gabe.

3 Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak (ABZ) "instalazio publikoak dira, baina ez espetxeak; egoera irregularrean dauden atzerritarrak atxikitzen dira zentro horietan, kanporatu ahal izateko, eta gehienez ere 60 egunez egon daitezke askatasunaz gabetuta […] Kalkuluen arabera, hilean 1.000 lagun baino gehiago barneratzen dituzte eta horietatik erdia baino gehixeago kanporatu egiten dituzte azkenean." Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu, CEAR-Euskadi, Asiloari buruzko hiztegia, hemen eskuragarri: http://diccionario.cear-euskadi.org/eu/centros-de-internamiento-de-extranjeros-cie/

AUGUSTINE,
KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOKO EMAKUMEA, 40 URTEKOA, OSPITALE BATEN KUDEATZAILEA.

Augustinek bere herritik ihes egin behar izan zuen jazarpen politikoaren eta erlijiosoaren ondorioz. Ospitale baten kudeatzaile zela, zauritutako pertsona bati zaintza medikua ematea eta bere etxean hartzea erabaki zuen. Erregimenaren aurkako oposizioan aritzea leporatzen zitzaion pertsona horri. Poliziak jazarri egiten zuen pertsona hori Bundu Dia Kongo (BDK) edo Bundu Dia Mayala izenekin ezagutzen den erlijio-kongregazioko kide izateagatik. Erregimenak oposizio politikoko ekintzak egitea leporatzen dio kongregazioari.

Jakin zenean Augustinek etxean hartu zuela pertsona hori, erregimenak bidegabeki leporatu zion kongregazio horretako kide izatea. Hainbat hilabetetan espetxeratu zuten, epaiketarik gabe. Behin-behineko askatasuna lortu zuen arren, Kongoko poliziak etengabe eta bortizki jazarri zituen Augustine bera, bere seme-alabak eta beste senide batzuk. Espetxera bueltatzeko beldurra sentitu eta polizien gehiegikeria bortitzak pairatzeko arriskua ikusita, bere seme-alabak etxekoen zaintzapean uztea erabaki zuen, eta babes bila abiatu zen, Kongoko Errepublika Demokratikotik ihesi. Pertsona batzuekin hitz egin ondoren, hegazkinez atera zuten handik, estatu espainiarrera joateko.

Bakarrik irten zen Augustine bere etxetik, seme-alabak senideen eta lagunen zaintzapean utzita. Bilbora iristean, bidean lagun izan zituen pertsonek beraiek lapurtu zizkioten aldean zeramatzan ondasun apurrak, eta abandonatu egin zuten.

> "Nire behin-behineko askatasuna eskatu zuen nire abokatuak, eta astebeterako eman zidaten. Egunero joan behar nuen espetxera sinatzera, baina bigarren egunetik aurrera, etxera zetorkidan polizia, nire bila, gauzak egitera… Gauez etortzen ziren, seme-alabekin nintzela, laurok etxean. Nire alaba zaharrena mehatxatzen zuten. Eta txikiak… Kolpatu egiten gintuzten, niri eta nire seme-alabei. Denetarik, denetarik. Ez nintzen seguru sentitzen, atxilotua eta espetxeratua gerta nintekeen berriro, edozein unetan.
>
> […] Bilbon, taberna batean sartu ginen kafea hartzera, eta, bat-batean, nirekin zetozen bi mutilek erretzera irten behar zutela esan zidaten. Irtetean, ez nituen topatu. Tabernako jendeari galdetu nion, baina frantsesez bakarrik hitz egiten nuen eta haiek gazteleraz, eta ez nuen ezer ere ulertzen. Nekarren maleta txiki batekin joan ziren, dena eraman zuten… Soinean neraman poltsatxo batekin bakarrik geratu nintzen.."

HADY TRAORE,
MALIKO GIZASEMEA, 35 URTEKOA. BERE AMARI ETA ALABARI BIZITZA HOBEA ESKAINTZEKO IRTEN ZEN BERE HERRITIK, BERE HERRIAN ZABALDUTAKO INDARKERIA ETA MISERIA ATZEAN UZTEKO.

Familia pobre eta ugari batean jaio zen, 12 anai-arrebakoa. Pobrezian bizi izan du haurtzaro osoa, eta, egoera horrek bultzatuta, beste herrialde batzuetara joan ziren bere anai-arreba asko. Bere aita hiltzean, ikasteari utzi eta amari laguntzea erabaki zuen Hadyk. Autobuseko laguntzaile izan zen denbora luze batean, bidaiarien ekipajeak igotzen eta jaisten zituen. Bere bikotekidea haurdun geratu zen, eta alaba bat izan zuten.

Malitik hegazkinez irteteko adina diru aurreztu zuen Hadyk 2005ean. Dirua egin nahi zuen, bere herrian geratu ziren ama eta alaba zaintzeko. Europara iritsi ondoren, gatazka armatua piztu zen Malin, eta ezinbesteko asiloa eskatu zuen 2012an[4], baina ezetsi egin zioten eskaera.

4 Ezinbesteko asiloa emango zaio "jatorriko herrialdetik ateratzean errefuxiatua ez den pertsonari, baldin eta izaera horretara ondoren heltzen baldin bada bere herrialdetik kanpo dagoen bitartean bertan gertatutakoak direla-eta (adibidez, estatu-kolpe bat) edo atzerrian egin dituen jarduerak direla-eta (adibidez, bere aktibismoa giza eskubideen defendatzaile gisa)." Kontsultatu,

Espainiar estatuan bizitzen urteak eman ondoren, sustraitze-egoera onartu zitzaion azkenean Hadyri 2015ean[5].

> "Ez dut inoiz ere ahaztuko handik irten nintzen eguna, ama eta alaba bainituen buruan. Haiek berriro ikusiko ote nituen, besterik ez nuen gogoan. Hori duzu buruan, baina, aldi berean, geroari begiratzen diozu. Nire alabaren geroan eta hari eman diezaiokedan laguntzan pentsatzen nuen. Ez nuen nahi nik txikitan sufritu nuena pairatzerik; edozer egiteko prest nintzen haren bizitza hobetzen laguntzeko."

SAMUEL,
GIZASEME KAMERUNDARRA, AKTIBISTA POLITIKOA ETA PAUL BIYAK ZUZENDUTAKO DIKTADURA-ERREGIMENAK EGINDAKO JAZARPENAREN BIKTIMA.

Unibertsitate-ikasleen kontseiluko presidentea eta gutxiengo ingeles hiztunaren ordezkari politikoa izan zen. Independentzia aldarrikatzen du gutxiengo horrek. Militar frantses hiztunek jazarri egin zuten, eta bere biziaren aurkako atentatuak pairatu zituen. Bere familiak ere jazarpena pairatu zuen.

Bizia arriskuan zuela ikusita, Samuel herrialdetik ateratzea erabaki zuen ingeles hiztunen kontseilu nazionalak[6] Bidaia luze eta zail bati ekin zion orduan, bere bizia arriskuan izan baitzen behin baino gehiagotan. Hori gertatu zitzaion, esaterako, Nigerian. Asiloa eskatu zuen herrialde horretan, eta lanean jarraitu zuen, Kamerungo gutxiengo ingeles hiztunaren eskubideen alde. Nigerian erakutsitako aktibismo horren ondorioz, mehatxu gehiago jaso zituzten Samuelek eta bere lagunek; gainera, mehatxua gauzatu egin zen, erail egin baitzuten bere lagun horietako bat. Horren ondoren, irten egin zen herrialde hartatik, Niger, Aljeria eta Maroko igarota. Asiloa eskatu zuen Marokon, eta CEAR ezagutu zuen Melillan. Itxaron-denbora luzea, 3 urte eta 3 hilekoa, egin zuen EBBZn[7], eta, azkenik, penintsulan sartzeko baimena eman zioten. Sevillarra iritsi zen 2014an, eta nazioarteko babesa eskuratu zuen han.

> "Kontua ez da mehatxatu egiten nindutela, kontua da jazarpen politiko itzela ezarri zidala biziarterako boterea izan nahi duen presidente baten gobernuak; 32 urte daramatza, izan ere, boterean. Denetarik bizi izan nuen Kamerunen, gaztea nintzelako eta herriaren eta unibertsitatearen ordezkari izan nahi nuelako. Funtzionamendu politikoa berritzen eta egoera ekonomikoa aldatzen saiatu nintzen, negargarriak baitira. Gure nortasuna azaldu nahi dugu, ingeles hiztun garela adierazi, baina oso zaila da hori egitea Kamerunen. Bestelako pentsamoldea dutenak erail nahi ditu hango sistemak.

CEAR-Euskadi, Asiloari buruzko hiztegia, hemen eskuragarri: http://diccionario.cear-euskadi.org/eu/asilo-sobrevenido/

5 Espainiar estatuan egoera irregularrean (egonaldiko edo egoitzako baimenik gabe) dauden pertsonei agiriak emateko modua bat da sustraitzea. Kontzeptu juridiko zehazkabea da, eta pertsona atzerritarrak bizi den lekuarekin duen loturari begiratzen dio. 557/2011 Errege Dekretuko 124. artikuluak arautzen du. Lotura edo harreman hori ekonomikoa, soziala, familiakoa, lanekoa, akademikoa edo bestelakoa izan daiteke. Baina lotura edo harreman sendoa izan behar du, herrialdean bizitzeko interesa erakusteko adinakoa. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu: 557/2011 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen den Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua.

6 Ingelesa darabilen talde sezesionista da Kamerun Hegoaldeko Kontseilu Nazionala (SCNS du ingelesezko sigla), ez du indarkeria baliatzen, eta Kamerungo hegoalde ingeles hiztunaren autonomia nahiz independentzia aldarrikatzen ditu, gehiengo frantses hiztuna duen Kamerungo Errepublikan. Arrazoi horretan oinarrituta, gobernu zentralak legez kontrako erakunde izendatu du SCNS taldea. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu: Amnistía Internacional, Informe 2010, El estado de los derechos humanos en el mundo.

7 Etorkinak behin-behinekoz barneratzeko zentroak edo EBBZk "establezimendu publikoak dira, Etorkinak Integratzeko Zuzendariordetza Nagusiak kudeatuak. Lehen harrerako bitarteko gisa eratu dira, eta oinarrizko gizarte-zerbitzu eta prestazioak (besteak beste, ostatua eta mantenua, laguntza psikosoziala eta sanitarioa, lege-laguntza eta aisia-jarduerak) jartzen dituzte Ceutako eta Melillako Hiri Autonomoetara iristen diren etorkinen eta asilo-eskatzaileen eskura [...] Errefuxiatuak Hartzeko Zentroekin (EHZ) batera, migrazio-zentroen sare publikoa osatzen dute." Kontsultatu, CEAR-Euskadi, Asiloari buruzko hiztegia, hemen eskuragarri: http://diccionario.cear-euskadi.org/eu/centro-de-estancia-temporal-de-inmigrantes-ceti/

> […] Egoera lazgarriak bizi izan ditut, inork ere jasan ezin dituenak […] Nik, edozein gazteren moduan, gauza asko egin nahi nituen bizitzan. Baina lagunak, familia, ametsak eta hainbat gauza galdu nituen; bizitzeko eskubiderik ez nuela zirudien"

ROSARIO VÁSQUEZ,
EMAKUME KOLONBIARRA ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO EKINTZAILEA.

Rosariok eta bere bi semeek mehatxuak jaso zituzten Kolonbian, bai pertsonen aurkako minen biktimekin egindako lanarengatik, eta bai, bereziki, bere erakundeak egin dituen salaketengatik, Kolonbiako ejertzitoak eta poliziak gai horretan duten erantzukizuna eskatzeko.

Bere aktibismoa aitortzeko, beka bat eman zion Taula Catalana per la Pau i els Drets Humans a Colombia erakundeak, Bake Kulturen graduondokoa egin zezan Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren Escola de Cultura de Pau eskolan. Nazioartean eragin eta salaketak egiteko aukera ematen du programa horrek. Bartzelonan bizitzen ari zela, mehatxu gehiago jaso zituen Rosariok, eta talde paramilitarren zerrenda bat baino gehiagotan azaldu zen bere izena. Une horretan hartu zuen Bartzelonan geratu eta Kolonbiara ez itzultzeko erabaki latza, bere burua babestu beharrean baitzen.

Gaur egun, Rosarioren kasua ikertzen ari da Kolonbiako fiskaltza, baina ez da aurrerapen handirik egin. Babes fisikorako neurriak soilik eskaini dizkio orain arte Kolonbiako estatuak, baina, bere iritziz, ez dira nahikoa.

Rosario asilo-eskatzaile izan zen 2009 eta 2015 bitartean, baina etsi egin zuen azken urte horretan. Iraupen luzeko egoitza-baimena du gaur egun, 2021. urtera bitartekoa.

> "Denbora neraman mehatxuak jasotzen: nire alabari, esaterako, sufragio bat eman zioten eskolatik irtetean, hilen eskela moduko bat da, Kolonbian ematen dena, eta nire izena zeraman; posta-entregak ere izan nituen, etxetik irteten nintzenetik lantokira iristen nintzen arte egiten nuen bideko argazkiak zekartzatenak.
>
> Garai hartan, matxinatuekin geundela esaten ziguten giza eskubideen alde lan egiten genuenoi, gai humanitarioak aldarrikatu eta biktimen ondoan geundenoi. Edo, bestela, matxinatuen laguntzaile edo haien jarraitzaile ginela, baita estatuaz besteko talde armatuen kide zuzenak izatea ere, ezkerreko pentsamoldekoak. Hori esaten ziguten urraketak nabarmendu nahi genituelako eta adierazi nahi genuelako Estatua dela, Kolonbian, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzen duen eragileetako bat.
>
> […] Nire familiarengatik erabaki nuen hemen geratzea; esan zidaten bizirik nahi zutela ama, eta ez hilda."

LUZ AMPARO PIMIENTO,
EMAKUME KOLONBIARRA, HEZITZAILEA, AKTIBISTA POLITIKOA ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO EKINTZAILEA. ORAIN 26 URTE IRTEN ZEN BERE HERRITIK.

Hainbat giza eskubideren urraketak, hala nola desagertze behartuak, atxilotze arbitrarioak eta preso politikoen eskubideen urraketak salatzeko mugimenduetan parte hartu zuen. Ezkerreko militantzia politikoa zuten bere familiako kide askok. Bere aktibismoak gero eta oihartzun handiagoa izan zuen, eta bere inguruko pertsonen aurkako erasoak hasi ziren. Desagertuak, erailak eta kartzelaratuak izan zituen inguruan. Gainera, hura bahitzen saiatu ziren, eta modu arbitrarioan atxilotu zuten. Atxilotze-denboran, tortura fisikoak eta psikologikoak egin zizkioten.

Zenbait mugimenduko partaide zen Amparo garai hartan, mugimendu horietako batek, liberazioaren teologiaren inguruko mugimendu katolikoak eman zion laguntzari esker, askatasuna lortu zuen. Nazioarteko oihartzuna izan zuen bere kasuak, eta nazioarteko zenbait erakundek, estatu kolonbiarra salatu ondoren, haren bizitza babesteko exijitu zuten. Horri esker, errefuxiatu-estatusa aitortu zion Suediak. Hala ere, zail egin zitzaion Suedian bizitzea, kulturen arteko talka bizi eta bakardade handia sentitu zuen. Euskal gizarte-erakunde batzuekin harremanetan jarri ondoren, Euskadira etortzea erabaki zuen.

> "Ihes egiteko arrazoi bakarra izan zen gu eta beste pertsona-multzo handi bat deserosoak ginela Kolonbiako gobernuarentzat. Gure aktibismo politikoa zitzaion deseroso gobernuari, giza eskubideen urraketak salatzen genituen.
>
> [...] Nire herrian (pertsonak) gero eta sarriago desagertzen hasi ziren; oso gertukoak nituen pertsonak desagertzen hasi zitzaizkidan. Zenbait mugimenduren partaide nintzen, eta nire familiaren militantzia politikoari atxikia nintzen aldetik, gaizkile gisa, terrorista moduan seinalatzen. Finean, hiru aukera nituen: gerrillan sartzea, [...] bertan geratu eta hil nintzaten uztea, eta, azkena, erbesteratzea. Eta pentsatu nuen, bizitza duin baten alde eta biziaren beraren alde ari banintzen, erbestea zela lekua, ezta?"

1.2. PERTSONA ERBESTERATUAK ETA HAIEN ONDORENGOAK:

IGOR PALOMERO,
FUSILATU BATEN BILOBA ETA AITA KOMUNISTA BATEN SEMEA, BERE FAMILIAREKIN ERBESTERATU ZEN VARSOVIARA, 1965ETIK 1977RA.

Gijonen fusilatu zuten bere amaren aldeko aitona, 37an. Gerrako haurrak izan ziren bere aita eta ama, hau da, Gerra Zibila hasi eta gutxira, SESBera bidali zituzten, oraindik oso gazteak zirela. Han hazi ziren, han ezagutu zuten elkar eta han ezkondu ziren. Ezkondu ondoren, estatu espainiarrera itzuli ziren 1956an, eta Basauriko San Migelen ezarri zuten bizilekua. Han jaio ziren Igor eta bere arreba zaharrena.

Igorren aita militante komunista zen diktadura frankistaren urte haietan, eta pairatu zuen jazarpenaren ondorioz, familia osoak berriro irten behar izan zuen espainiar estatutik 1965. urtean. Poloniako alderdi komunistaren eta Gurutze Gorriaren laguntzari esker, Varsovian ezarri zuten bizilekua. Franco hil ostean, Igor eta bere gurasoak Euskadira bueltatu ziren, azkenik, 1977an.

> "Alderdi komunistako militantea zen aita, eta Komunismoaren eta Masoneriaren aurkako Auzitegi Bereziak epaitu zuen. Auzitegi hori 1963. urtera arte existitu zen, eta Ordena Publikoko Auzitegia izatera igaro zen gerora. Bi urte eman zituen espetxean, Burgoseko kartzelan eta Carabanchelen. Espainiatik irten behar izan zuen 1965ean. Alderdiak gomendatu zion hori egitea, "erreta" zegoelako, hau da, brigada politiko-sozialak, erregimeneko polizia politikoak, jazarpen handia egiten ziolako. Parisera joan ginen lehendabizi, alderdi komunistaren etxebizitza batera. Hilabetez izan ginen han. Ondoren, Pragara joan ginen, alderdi komunistak harreman handia baitzuen ekialdeko alderdi komunistekin. Azkenik, Varsoviara bidali ziguten.
>
> [...] Itzultzea zen gurasoen amets bakarra. Itzultzeko falta zitzaizkien egunak deskontatzen ari zirela zirudien. Franco hil zenean, 75eko azaroan, itzultzeko urratsak ematen hasi ziren. Nire aita 76an itzuli zen, kontsul-ordezkaritzan egin ziren aurrenetako pasaportea izan zen harena.

ANA MARY RUIZ,
ESPAINIAR ESTATUTIK 1939AN ERBESTERATUTAKO GURASOEN ALABA.

Cecilia G. de Guilarte izan zen bere ama, kazetaria eta Gerra Zibila piztu ondoren izan zen lehen gerra-berriemailetako bat. Bere idatzi eta erreportajeei esker, euskal erbesteko pertsona nabarmena izan zen. Gudaroste errepublikarreko komandantea zuen aita. Bere ama, kazetaria eta gerrako erreportaria, Confederación Nacional del Trabajo (CNT) erakundearen egunkariarentzat idazten zuen Euskadin. Errepublikarrak garaituak izango zirela ikusita, bere gurasoak babes bila abiatu ziren eta 1939an irten ziren Bilbotik. Frantziara abiatu ziren lehenik eta, ondoren, 1940an, behin betiko erbesteratu ziren Mexikora. Mexikon jaio zen Ana Mary, 1947an. Azkenik, Sonoran ezarri zen familia osoa, Estatu Batuekiko mugan. Han, agronomia-ingeniaritzan aritu zen lanean bere aita.

Ana Maryk adierazten du bere amaren idatziei esker, hau da, haren liburuei, artikuluei, gutunei, saiakerei eta gainerako dokumentuei esker jakin duela zer bizi izan zuten bere gurasoek urte haietan. Esaten du bere ama emakume oso aurreratua zela bere garairako. Ez zion inoiz ere utzi lan egiteari eta idazteari, eta beti aldarrikatu zuen emakumeek iritzia eman dezaketela eta ideia politikoen alde borroka daitezkeela, gizonek egiten duten moduan.

> "Gurasoak 39an erbesteratu ziren. Nire aita komandantea zen garai hartan. Frantzia aldera, beren erbestera abiatu zirenean, deika zuen ejertzito nazionala, fusilatzeko, ziur asko. Nire amak idatzi egin zuen gerra-garai osoan, Euskadin lehenik eta Bartzelonan ondoren. Horrez gainera, berriemaile-lanak egin zituen. Euskadiko diziplina batailoian izan zen eta han ezkondu zen nire aitarekin. Nire aitak zuen postuari esker, ama autoz joan zitekeen frontera, eta han idazten zituen artikuluak, lubakietan. Bartzelona eta Mexiko bitarteko erbesteratzea kontatu zuen "Un Barco cargado de…" liburuan. Bartzelonatik Mexikora abiatzeko irteera azaldu zuen Erbestearen trilogiako lehen liburuan, "Cualquiera que os de muerte" izenekoan, eta Murtziako "Águilas" saria irabazi zuen liburu horrekin 1969an.
>
> […] Batik bat, nire amaren artikuluen eta gutunen bidez jakin dut gerra-garaian bizi izan zituztenen berri, eta ez haiek guri esandakoen bidez. (Ama) ez zen istorioak kontatzen zituen horietakoa, eta, itzuli zenean, ez zuen gerra-denboran idatzi zituen artikuluak eta liburuak bilatzeko interesik azaldu. Emakumeak etxera bueltatzearen aurka agertu zen emakumea izan zen, nahiz eta hori agindu zen, dekretuz, 1937an, emakume guztiak atzeguardiara bidali zituztenean. Hala eta guztiz ere, emakumeek lan handia egin zuten. Horri buruzko artikulu bat argitaratu zuen (nire amak) iparraldeko CNTn."

AINARA UNAMUNO,
1939 ETA 1940 BITARTEAN VENEZUELARA ERBESTERATUTAKO IHESLARIEN BILOBA.

Gerrako haurra izan zen Ainararen amona. Oso gaztea zela (bere familiako txikiena zen), eta Gerra Zibilaren ondorioz, amarik eta aitarik gabe geratu zen; horrez gain, bi anaia zaharragoak galdu zituen, Euskadin fusilatutako lehenak izan baitziren. Hori guztia ikusita, Frantziara bidali zuten, bere anaia txikiarekin. Mugaz bestalde, Donibane Lohizunen bizi zen ahizpa adinez nagusiaren zaintzapean geratu ziren. Urte batzuk igaro ondoren, estatu espainiarrera bueltatu zen Ainararen amona, eta han ezagutu zuen bere senarra. Ezkonduta eta Gerra Zibila amaituta, Ainararen aitonak eta amonak Venezuelara abiatzea erabaki zuten 1939 eta 1940 bitartean.

Venezuelan jaio zen Ainara. Bere sustraiak ezagutzeko eta itzultzeko gogoak bultzatuta, Bilbora joatea eta han bizitzea erabaki zuen 20 urteko adinarekin. Bere amonak indartu egin zuen asmo hori, herrimin handiz bizi izan baitzuen erbesteratze-denbora

"Haurtzaro zaila izan zuen (nire amonak). Hura zen txikiena, eta bi anaia zaharragoak zituen, Euskadin fusilatu zituzten lehen biak (Angel eta Esteban Elgezabal). Orduan, bi anai-arreba txikienak Frantziako muga igaro zuten. "Gerrako haurrak" ziren, Iparraldean errefuxiatuak. Gerra aurrera zihoan, eta iparraldeko lurretan hazi ziren.

Amamak 1937. urtearen bueltan ezagutu zuen aitite. San Antongo elizan ezkondu ziren, eta Venezuelara joan ziren itsasontziz. Bidaia 39-40 urteen bitartean egin zuten. Nire amamak, abiatzean, bere familia zuen gogoan, fusilatu zituzten bere anaiak, eta bere ahizpa María de las Nieves, gainerako seme-alabak zaindu zituena, zaharrena. Uste dut gerora pentsioren bat kobratzea lortu zuela "Gerrako Haurra" izateagatik."

MAITENA JÁUREGUI,
EUSKAL ABERTZALETASUNARI ATXIKITAKO FAMILIA BATEAN JAIOA. GERRA HASI ZENEAN, SEME-ALABAK MEXIKORA ERAMATEA ERABAKI ZUEN BERE AITONAK.

Euskal abertzaletasunari atxikitako familia batean jaio zen Maitenaren aitona. Alargun geratu zen, eta Mexikora joatea erabaki zuen, bere anaia txikiaren gonbidapena onartuta. Anaia hori Mexikoko euskaldun batekin ezkonduta zegoen, eta negozio batzuk zuzentzeko aholku eskatu zion, abokatua zen aldetik. Aitonaren seme-alabak Euskadin geratu ziren lehen urteetan, baina gerra hasi zenean, denak Mexikora eramatea erabaki zuen. Maitenaren ama, erizaina eta 18 urte bete gabea garai hartan, derrigortuta joan zen..

Mexikon jaio zen Maitena, eta han bizi izan zen gaztarora iritsi arte. Gaztaroa iristean, Euskadira itzultzea erabaki zuen. Euskadira iritsita, ezkondu eta familia bat osatu zuen.

"Nire aitona urtero etortzen zen (Mexikotik) bere seme-alabak ikustera, 6 zituen guztira. Baina gerra iritsi zenean, hura hasi eta 8 edo 9 hilabetera, joan egin behar zutela esan zien. Nire amak ez zituen 18 urte eta ez zuen joan nahi Eusko Jaurlaritzako erizaina zelako, baina joatera derrigortu zuten. [...] Nire amak esaten zuen urratu bat sentitu zuela joateko tenorean, eta ez ziola inoiz ere barkatuko aitari hemendik joanarazi izana."

ANE ALBIZU,
82 URTEKOA, BIDAIA LABUR BAT EGIN ZUEN PARISERA BERE AMAREKIN ETA AHIZPAREKIN GERRA ZIBILEKO BONBARDAKETEN ONDORIOZ.

Bonbardaketak hasi zirenean, Algortatik irten zen Ane bere amarekin eta ahizpa zaharrago batekin, 3 hilabeterako. Itsasontziz abiatu ziren, eta gero trena hartu zuten Pariseraino, Arriluze, Santoña, Arnuero eta Santander igarota. Euskadin geratu zen aita, adineko ama zaintzeko. Itzultzea erabaki zuten handik lasterrera, beren aitak eta amak ez baitzuten, beste senide batzuen moduan, jazarpenik pairatzen eta jardun politiko aktiborik egiten.

Neskato oso txikia zen Ane orduan, eta bere amaren negarrak eta inguruko pertsonek esaten zituzten zenbait gauza baino ez ditu gogoan kanpoan izan ziren hilabete haietatik.

"Gogoan dut, hegazkinak pasatzen hasi zirenean, babeslekuetara joaten ginela eta hango leku batean sartzen gintuztela. Eta zaku asko ditut gogoan, hondarrez betetakoak. Eta gogoan iltzatuta geratu zait babeslekutik itzuli ginen gau bat, eta nola nire amak gauzak bildu zituen bizi ginen etxe honetan bertan. Nire ama eta ni

baino urtebete zaharragoa zen ahizpa bat joan ginen, nire amaren ahizpa bat, haren senarra eta bi seme-alabak; elkarrekin egin genuen Frantziarako bidaia osoa.

Hiru hilabete igaro ondoren, nire ama eta bi ahizpak itzuli egin ginen, ez baikenuen, berez, hemen bizitzeko eragozpenik. Bonbardaketetan zerbait gertatzeko beldurrez egin genuen ihes. Bizi baino gehiago, entzun egin ditut horiek guztiak, baina, hala ere, norberak ez ditu horrelakoak inoiz ere ahazten."

KEPA ETA JOSU ATXURRA,
ANAIAK. GERRA ZIBILAREN LEHEN URTEETAN FRANTZIARA IHES EGIN ONDOREN, BEREN GURASOEK VENEZUELARA JOATEA ERABAKI ZUTEN 1947AN, BEHIN BETIKO EZARTZEKO.

Kepak eta Josuk Frantziara ihes egin zuten 1937ko gau batean, haien gurasoekin eta beste bi anaiekin. Algortatik irten ziren, eta, bidean, Laredotik, Arnuerotik eta Santanderretik igaro ziren (komentu batean lo egin zuten Laredon, beste familia askorekin). Azkenik, Frantziarako itsasontzia hartu zuten Santanderren.

Beldurrak eta topatuko zutenaren gaineko ezjakintasunak bultzatuta, Venezuelara beste inor gabe joatea erabaki zuen Keparen eta Josuren aitak, ama bakarrik utzita, Frantzian, lau semeen kargura. Alemaniarrek Frantzia inbaditu zutenean, Euskadira itzultzea erabaki zuten amak eta semeek, beren buruak babesteko asmoarekin. Iristean, ordea, kontzentrazio-eremu batean sartu zituzten, Irunen. Zorionez, egun bakar bat egin zuten Irungo eremu horretan, haien lehengusina bat joan baitzen haiek bilatu eta hartzera.

Aita 1939an itzuli zen Euskadira, eta familia osoak, azkenik, 1947an emigratu zuen Venezuelara.

"Gure etxean 20:15ean afaltzeko ohitura zegoen. Nire aitak ordu horretan afaltzeko agindua emana zuen, eta guztiok egon behar genuen 20:15ean etxean. Gau hartan etorri gabea zen ordu horretan... eta 20:30ak eta 20:45ak eman zituzten, eta falta zen oraindik... Azkenik, 21:30 edo 21:45ak aldera iritsi zen, eta esan zuen: 'tira, gure zain izango dira 23:00etan, beraz, prestatu guztiak irteteko'.

[...] Ez genekin ezertxo ere, noski. Aita eta ama alde batetik; beno, aita gurekin zegoen Santanderren izan ginenean, [...] eta gurekin joatekoa zen itsasontzira, eta hori. Ploubazlanec izena zuen itsasontziak, itsasontzi hori zen. [...] Bodegan joan ginen, bai, bodegan jarri gintuzten neba guztioi. Eta zera esaten ziguten: 'jarri maletaren gainean; eta ez mugitu, dena lapurtuko dizute-eta!'. Bildutako manta bat hemen eta beste biak tapatzeko mantekin, han ginen, tontoen moduan."

ARANTZAZU AMETZAGA IRIBARREN,
BUENOS AIRESEN JAIOA, GURASOEN ERBESTERATZE-ALDIAN. LATINOAMERIKAKO HIRU HERRIALDETAN BIZI IZAN ZEN FAMILIAREKIN: ARGENTINAN, URUGUAIN ETA VENEZUELAN.

Otxandio, Erandio, Gernika eta beste leku batzuetako bonbardaketak gertatu zirenean, Arantzazuren aitak, Bingen Ametzaga Arestik, Lehen Irakaskuntzako zuzendari-lanak egiten zituen Eusko Jaurlaritzarentzat. Bonbardaketak ugaritu zirenean, bera eta bere emaztea irten egin ziren Algortatik 1937an, Parisera ihes egiteko. Han, erbesteko Eusko Jaurlaritzarentzat lanean jarraitu zuen. Hala ere, Bigarren Munduko Gerra hasi eta naziak Parisen sartu zirenean, Atlantikoaren beste aldean babesteko erabakia hartu behar izan zuten Arantzazuren aitak eta amak. Bakarrik abiatu ziren Amerikara 1940an, beren lehen bi alabak Arantzazuren

izeba baten zaintzapean utzita. Bidaia luze eta zaila izan zuten: Ingalaterrako agintariek geldiarazi egin zuten beren itsasontzia, Alsina izenekoa, bandera frantsesa zeramalako. Itsasontzian harrapatuta izan ziren 6 hilabetez, eta handik Marokoko kontzentrazio-eremuetara bidali zituzten, beste 3 hilabeterako.

Behin betirako Venezuelan ezarri baino lehen, Argentinan eta Uruguain bizi izan zen Arantzazuren familia (Argentinan jaio zen, hain justu, Arantzazu). Herrialde horiek, Arantzazuk berak adierazten duen moduan, arrasto sakon eta onuragarria utzi dute bere nortasunean eta erbesteko bizipenean.

> "Hori izan zen nire aitaren bekatua, abertzalea eta EAJko afiliatua izateaz gain, Eusko Jaurlaritzan sartzea eta euskararen alde egitea. Lehen Hezkuntzako zuzendari izan zen Eusko Jaurlaritzan; eta gerra eta bonbardaketen bederatzi hilabete haietan arriskutsua zen euskal aberrigintzan aritzea, euskara berpizten saiatzea. [...] Fusilatuak izateko pertsonen zerrendako bosgarren lekuan zuen ejertzito frankistak haren izena. Eta, orduan, Gernikakoa gertatu zenean, Euskal Herriak eta eremu hartan zeudenek ikusi zuten ez zegoela erresistentziarekin jarraitzerik.
>
> Egunean behin bonbardatzen zuten Bilbo. [...] Orduan nire gurasoek ikusi zuten gerra amaitua zela beraientzat, Areetako elizan ezkondu ziren (gerora, bonbardatu egin zuten), eta erbestera abiatu ziren, gogoz kontra. Nire aitak atzean utzi zituen familiaren etxea, Ametzagen 3-4 belaunaldi, oso adin handiko ama, bere jaioterria eta euskara. Berekin zeramatzan haiek guztiak, baina utzi egiten zituen, aldi berean."

II. ERBESTEAREN ERAGINAK - ZER ONDORIO DAKARZKIO ERBESTERATU BEHARRAK NORBERAREN BIZITZARI?

2.1. ONDORIO PERTSONALAK

Pertsona errefuxiatuek eta erbesteratuek gehien nabarmentzen duten ondorio pertsonaletako bat da bizipen horrek **tristura handia** eragin diela. Inoiz ere ahaztu ezingo duten bizipena dela sentitzen dute, nostalgia handia eragiten die eta dolu luze eta mingarri bat ekarri ohi du. Horren berri ematen digute Aminaren eta Samuelen hitzek:

> "Bi aldiz errefuxiatu naizela sentitzen dut. Errefuxiatu izan nintzen Aljerian, eta beste leku batera joatean gero, egonkortasun handirik gabe. Herrimin hori sentitzen jarraitzen dut, urruntasuna, atzean uzten dituzu zure jendea, ingurunea eta kultura. Eta irabaz dezakezuna baino askoz ere gehiago uzten duzu atzean. […] Banantzea da gogorrena, eta laztasun bilakatzen da behartutakoa denean. Premiazkoa dugulako emigratu ohi dugu, nahiz eta, horren atzean, norberak bere helburuak izan ditzakeen." *(Amina)*

> "Oso egoera gogorra da alderdi psikologikoan… Bizitza kentzen dizutenean, ametsa galarazten dizutenean, beti izango duzu nahiago hiltzea, bizitzea baino. […] (ezerk ere) ez du zentzurik, dena irteten da gaizki. Egoera horretan negoen." *(Samuel)*

Erbesteratuen ondorengoekin ere gauza bera gertatzen da, gogoan izaten baitute erbesteak beren gurasoei eta aitona-amonei eragin zien tristura. Honela azaltzen du Igorrek bere gurasoen egoera:

> "Ez zuten inoiz ere gainditu erbesteratzearen bizipena. Baina, zer da erbesteratzea gainditzea? Ez duzu beste aukerarik, joan egin behar duzu. Subjektu pasiboa zara ia, inor ez da gogoz erbesteratzen. Ezin du inork ere ulertu zer den erbesteratzea, harik eta erbesteratu beharrean izan arte." *(Igor)*

Eta hauek dira Ana Maryk eta Maitenak esandakoak:

> "Espainiatik irtetea? Gaizki, gaizki, oso-oso gaizki. Ez zuen Euskal Herritik joan nahi, ez zuen hemendik irten nahi. […] Frantzian bizi izan ziren 2 urtez, eta egia da ez zutela erbestea jende gehienaren moduan bizi, kontzentrazio-eremuetan. Ez dakit nire aita goi-karguduna zelako izan ote zen; hala izan ohi da beti, tamalez. La Rocheleko ospitale batean izan zen nire aita, zauriturik: lepoa zeharkatu zion bala batek, eta hiltzeko zorian izan zen. Sufrimendua pairatu zuten, hori bai, neska txiki bat zutelako, denetarik falta zitzaien eta ziurgabetasun handia zuten. Zer zekarkien geroak? […] Etxetik gero eta urrunago: Katalunia, Frantzia… Eta, orduan, Frantziatik abiatu zen azken itsasontzian, "Cuba" izenekoan, ontziratu ziren, Errepublika Dominikarrera, minez eta etsaien itsasontziz betetako itsasoan." *(Ana Mary)*

> "Urradura bat. [Nire amak] esaten du alemaniarrak bonbardatzen ari zirela eta haiek itsasontzian zeudela. Abiatu eta urradura bat sentitu zuela esaten du." *(Maitena)*

Bere amonaz eta aitonaz ari dela, Ainarak azpimarratzen du gogoan zituzten gertakari asko oso laburrak zirela, baina oso tristeak:

> "Tristuraz esaten zutela gogoratzen dut… Ez zen garai gozoa izango, ez horixe." *(Ainara)*

Elkarrizketatutako pertsonek maiz adierazten duten beste ondorio edo inpaktu bat da **beren jatorriko herrialdearen eta bizitoki berriaren artean banatuta izatearen sentipena izaten dutela**, eta horrek burua leku batean eta bihotza bestean izatera daramatzala. **Pertsona batzuek, gainera, adierazten dute beti galdetzen diotela beren buruari berriro ikusiko ote dituzten beren pertsona maiteak, beren lurra edo atzean utzi behar izan duten herrialdea.**

Aminak argi eta garbi azaltzen du, errefuxiatua den aldetik, nola bizi duen egoera hori:

> "Gorputza leku batean eta burua beste batean izatea bezala da. […] Bitan banatu nahi nuke, alde batean eta bestean egoteko. Bi lekuak baitira, izan, ezinbestekoak. […] Bada, zure puska bat uzten duzu han, baina lanbideak eta bizibideak beste nonbaiten izateko premia dakarkizu, baliagarri sentituko bazara." *(Amina)*

Bere egoera zehatzari begiratuta, Leilak gogoeta hau egiten du, azaltzeko zer dakarkion norberari **haustura** horrek, **jazarpen politikoaren ondorioz ihes egin behar izan denean:**

> "[…] zailagoa da migrazioa arrazoi politikoengatik izan baldin bada, lurra uztera zoazela dakizun arren, ez dakizulako itzuliko ote zaren. Agian ez duzu zure familia berriro ikusiko, inoiz ere ez. Kurduok gure lurra uzten dugunean, erabaki oso zaila hartzen dugu, atzean utzitako horrekin hausten baitugu" *(Leila)*

Igorrek eta Ainarak ere, **erbesteratutako pertsonen ondorengoak biak, banatuta sentitzearen bizipenari buruz dihardute:**

> "Itzultzea zen gurasoen amets bakarra. Itzultzeko falta zitzaizkien egunak deskontatzen ari zirela zirudien, beti zuten gogoan bueltatzea. Ez zekiten noiz itzuliko ziren, Espainiako egoera politikoaren mende zegoen. Beren lurraldera bueltatzeko grina zuten, baina ez zen sentimendu kontua soilik, buruak ere bazuen zeresanik, kontu objektibo batengatik: erbesteratutako pertsonak itzultzeko baldintza politiko egokiak bete behar ziren." *(Igor)*

> "Han Ainara euskalduna esaten zidaten, eta hemen Ainara venezuelarra naiz. Azkenean, ez naiz ez leku batekoa, ez bestekoa. […] Beti eutsi zioten itzultzeko ilusioari, hemen barnetegian zituzten bi seme nagusiengatik, itzultzea lortu zuen arreba batengatik… Beti etorri nahi zuten, beti zuten oporretan bueltatzeko arrazoiren bat (Venezuelan egonkortuta eta itzultzeko baliabideak zituzten garaian). Eta han geratu ziren aititek ez zuelako Espainiara bueltatu nahi." *(Ainara)*

Adierazi berri dugunaren ildotik, **beren iraganaren eta orainaren arteko talka handia bizi dutela adierazten dute pertsona errefuxiatu batzuek.** Egia da deserrotzeak, alde batetik, tristura eta goibeldura handiak sorrarazten dituela, baina, bestetik, Euskadin etorkizun hobeagoa saretzeko, **itxaropena ere** sorrarazten duela, bai pertsona erbesteratuentzat beraientzat, bai atzean utzi behar izan duten familiarentzat. Etorkizun hori segurtasun pertsonal handiagokoa eta baldintza material hobeagokoa izatea espero dute, eta baldintza horien artean dira, besteak beste, etxebizitza, arropa, janariak eta edariak, hezkuntza, osasuna eta sendagaiak.

> "Ahalduntzeko eta egunez egun hazteko modua dut hemen geratzea. […] Hemen (Euskadin), beti sentitu dut baliagarri naizela. Nire familiari ahal dudan moduan laguntzen ahalegindu naiz […].Ekarpen txikiak dira, jakin badakizu zure familiak lagungarri izango dituela, eta horrek zentzua ematen dio urrunean bizi duzunari. […] Horrelako zerbait sentitzen duzu: misio bat betetzera irten behar izan duzula. Alde batetik, egoera baliatzen dut nire alabek prestakuntza bat eskura dezaten eta han ezinezko duten etorkizuna izan dezaten, eta, bestetik, nire familiari laguntzen diot." *(Amina)*

Hartzen dituen herrialdeak aurrekoa baino bizitza hobea eta seguruagoa izateko aukerak eman dakizkiekeen arren, **pertsona errefuxiatu eta erbesteratu guztiek adierazten dute ziurgabetasun, beldur eta kezka etengabeko sentipenak** zan dituztela. Ziurgabe eta beldur ageri dira gai askorekin: beren bizitzarekin, ezagutzen ez dutenarekin, atzean utzi dituzten pertsona maiteen ongizatearekin, bizirauteko lana edo bitartekoak lortzeko aukerekin, sumatu edo bizi izan duten arrazismoari eta klasismoari aurre egin beharrarekin eta beste gai askorekin.

"Gurutze Gorrira iritsi nintzen, negarrez, ez nekien ezertxo ere, eta han zegoen mutil batek mapa erakutsi eta frantsesez adierazi zidan, begira: 'Kongo hor dago eta zu hemen zaude.' Eta nik, nola? [...] Sentitu nuen beldurraren arrazoia zen ez nekiela berriro hara, Kongora, bidaliko ote ninduten. Neure buruari esaten nion: 'ez da ezer gertatuko...', baina beldurrez bizi izan naiz, beldur handiz." *(Augustine)*

"[...] ez dago bidegabekeria horietara guztietara moldatzerik. Oso egoera latzak bizi izan ditut. Inork ere jasan ezin dituenak. Nik, gazte guztien moduan, gauza asko egin nahi nituen bizitzan, eta orduan, garai horretan, banekien ezingo nuela jasan. Lagunak, familia, ametsak eta hainbat gauza galdu nituen; bizitzeko eskubiderik ez nuela zirudien" *(Samuel)*

"Venezuela aldera joan zitzaigun aita. [...] harekin joatekoak ginen, baina beldur itzela sartu zitzaion aitari, tartean bazegoelako politika-konturen bat. Baina ez nintzen konturatzen zergatik esaten zioten hori. [...] Hark esaten zuen: ´bai, familia osoa joango gara.´ ´Baina zoratu al zara!´, esaten zioten. ´Lau seme eramango dituzu hara, indioak dira haiek!´ Etengabe errepikatzen zioten... Halako batean, esan zuen: ´Ama, ba ez, ni joango naiz lehenik eta gero etorriko zarete zuek.´ [...] Eta dardara batean zen aita, hau esan baitzigun: 'Hemen geratuko zarete zuek.' Gauza bera esango zioten aitari eta beste batzuei." *(Josu eta Kepa)*

"Kontzentrazio-eremu batera eraman zituzten Alsinakoak, hiru hilabeterako. Haien biziak ez zuen baliorik inorentzat, eta ez dakit nola ez ziren joan-etorri horietan hil, elikadura txarraren, hersturaren edo bakardadearen ondorioz" *(Arantzazu)*

"Ez horixe, itsasontzian sartu ziren eta ez zekiten nora zihoazen; eta hara iritsi ziren. Badakit itsasontzietan banatu zituztela eta anai-arrebak leku berera joango zirela pentsatu zutela, baina ez zen horrela izan. Batzuk Kanadara eraman zituzten, beste bat Frantziara eta haiek Venezuelara. Pentsaezina da itsasontzi batera igotzea nora zoazen jakin gabe... Soinean daramazunarekin soilik..." *(Ainara)*

"Zertzelada batzuetan gogoratzen dut familiek hitz egiteko beldur handia zutela gerra ondorenean." *(Ane)*

Kezka eta ziurgabetasun bereziki handiak bizi dituzte seme-alaba txikiak utzi behar izan zituzten pertsonek, hala nola Hadyk, Augustinek eta Arantzazuren gurasoek.

"(aitari) Eusko Jaurlaritzatik esan zioten Amerikara zihoan itsasontzi bat itsasoratuko zela Marseillan, hura izan zitekeela abiatuko zen azkenetariko bat eta bidaiariak hartzeko lekua zuela. Alsina zuen izena [...] nire aita arrapaladan joan zen Marseillara, baina hara iritsi zenean ikusi zuen emakumeak joan zitezkeela, eta orduan euskaldunek beren emazteei deitu zieten presaka, hori baita euskal erbestearen ezaugarrietako bat: familiak joan ziren erbestera. Baina amak ez zuen joan nahi, nire ahizpak txikiak zirelako. Hala eta guztiz ere, denek uste zuten gerra laburra izango zela, eta nire izebak esan zion nire amari: 'joan zaitez senarrarekin, ni geratuko naiz hemen bi neskatikoekin.' Nire ama, beraz, Marseillara joan zen eta itsasontzira igo ziren. Bizitza osoan damutu zen." *(Arantzazu)*

Seme-alaba txikiekin gertatzen denari begiratuta, berariaz nabarmentzekoa da Leila eta bere semearen bidaia, indarkeria, beldurra eta segurtasun falta bizi izan baitzituzten bidean.

"Gaixorik abiatu zen nire semea, 6 urte baino ez zituen eta irten ginenean 10 hilabete baino gehiago zeramatzan bere aita ikusi gabe; eta berak uste zuen laster ikusiko genuela bere aita. [...] Gauez hartu gintuzten eta oinez igaro behar genuen muga. Mugak oso arriskutsuak dira 6 urteko haur batekin eta gauez joanez gero. [...] Hiru egun

> egon ginen gela batean, aulkiekin baina mahairik gabe; hiru egun horietan besoetan izan nuen semea, janaririk gabe, ezer gabe" *(Leila)*

Ziurgabetasunaz gain, jazarpen politikoaren ondorioz irten behar izan duten, **aktibista batzuek** hala nola heriotza-mehatxupean zeuden Amparok eta Rosariok, **nabarmentzen dute** oso handia dela **gauetik egunera beren bizitzak atzean uztera behartuta sentitzen denaren ezintasun-sentipena**. Ezintasuna sentitzen zuten ezin zutelako inolako erabakirik hartu eta beste pertsona batzuen mende zeudelako, bai ordura arteko bizitza atzean uzteko, bai maite dituztenak zaintzeko.

> "Aldaketa handiak gertatu ziren nire familian; nire etxea ixtea izan zen horietako bat. Etxebizitza txiki batean bizi nintzen nire alabarekin, eta, nahi izan gabe, kartoizko kaxetan sartuta ikusi nuen nire bizitza osoa, baina ez nuen haiek paketatzeko aukerarik ere izan. Norbaitek egin zuen nire ordez, nire etxeko norbaitek, zorionez. Nire bizitzaren atal bat ixten zela bizi nuen, baina sentitzen nuen ez nuela inolako erabakimenik egoera horren gainean." *(Rosario)*

> "Esan daiteke erabakia (Kolonbiatik irtetekoa) beste norbaitek hartu zuela nire ordez. […] Askatu nindutenean, esan zidaten ez zutela ezer ere nire aurka. Baina elementu arriskutsua nintzela esan zuten. Ba, hori jakinda, ez zegoen beste aukerarik… Ezin da horrela bizi, ez zegoen lekurik" *(Amparo)*

Elkarrizketatuei **harrerako herrialdean izandako bizi-baldintzen gainean galdetuta, asko aldatzen dira, pertsonatik pertsonara, izandako bizipenak**. Berariaz galdetuta **pertsona erbesteratuei eta beren ondorengoei:** ikusten da **harrerako herrialdean hobekuntza nabarmenak izan zituztela pertsona batzuen bizitzek**: baldintza material onak, askatasun politikoa eta/edo alderdi profesionalean aurrera egiteko aukera handiagoak. Pertsona horien bizipenean, erbesteratutako pertsonen sareek edo erbesteko Eusko Jaurlaritzak eskuratu zizkien baldintza on horiek, haiek izan baitzituzten lagun eta bidaide lehen unean (aurrerago azalduko dugu, zehaztasun handiagoz, eragile horiek erbestearen bizipenean bete zuten egitekoa).

Nahiko ondo azaltzen du hori guztia Ana Maryren amak Mexikon bizitakoak.

> "Nire ama idazlea zela jakin zuten eta Rumbo egunkaria joan zitzaion iritsi bezain laster, bidaiaren nondik norakoak kontatu nahi zituen galdetzera. […] Eta Rumbon idazten hasi zen. Horrez gainera, aldizkari bat zuzendu zuen, irratsaioak egin zituen eta liburuak idatzi zituen. Diruz (nire gurasoak) ez zebiltzan aparretan, baina bazuten bizitzeko adina. Eta ondo, ondo, azken finean lehen egunetik izan zuten lana, lana izan zuen nire amak. Neke handiagoak izan zituen nire aitak, baina nire amak, badiotsut, bere bizitzako egun guztietan egin zuen lan, egunero erretiratu zen arte. […] Gora egiten ari zen bere lanbidean, aitortzen ari zitzaien egindako lana, eta, bi liburu idatzi ondoren, gero eta oihartzun handiagoa zuen bere lanak. Eta nire aita, tira, Kixote bat da, edoezein lekutan ezagutarazten zuen bere burua, eta oso ezaguna zen Mexikon ere. Baina, egiaz, ez zuen zorterik izan negozioetan. […] Nire ama izan da, ondorioz, etxeari eutsi diona, lan eta lan beti, aldi berean bi lan eginez...; lan eta lan aritu da, etengabe, baina idazten aritu da beti." *(Ana Mary)*

Ehunekoa aurrekoena baino apalagoa baldin bada ere **pertsona erbesteratu batzuek adierazten dute zailtasun ekonomikoak eta/edo prekarietatea bizi izan zituztela, egunero, harrerako herrialdean.** Horrela azaldu dute Anek, Josuk eta Kepak.

> "Orduan, noski, ez zen dirurik sartzen, eta usinetara joan zen ama, arrainak garbitzera. […] Eta horrekin bizi izan ginen. Gerra hasi zenean, gobernuak ezin zuen hori bere gain hartu; bakoitzak erabaki behar zuen zer egin. Bada, gu Ziburura joan ginen bizitzera. Etxetxo batean zen, bat, bi hiru logelarekin; eta 12 bat bizi ginen." *(Josu eta Kepa)*

> "Eusko Jaurlaritzak antolatzen zuen hori. Atxurratarrak izan ziren horietako batzuk, itsasontzian joan baitziren Venezuelara. Eusko Jaurlaritzak antolatu zituen bidaia horiek ere. Hasieran nekeza izan zitzaien bizimodua ateratzea; helduak ziren haiek, baina ni txikia nintzen, eta txikia zarenean ez zaude ogia erosteko diruari begira... Helduek, ordea, ezer izan gabe ekin behar izan zioten beren bizitza berriari. Haientzat gogorra izan zen hasieran." *(Ane)*

Antzeko egoerak bizi izan ziren estatu espainiarrera bueltatzean; horrela adierazten dute egin diren elkarrizketek. **Elkarrizketa horietan, erbesteratutako pertsona batzuek gogoratzen dute itzulerak ere** –horietako batzuen ametsa zela adierazi den arren– **ez zituela ondorio beti positiboak izan**. Berariaz alderdi ekonomikoari begiratuta, Igorrek honela azaltzen du zer ondorio izan zituen beretzat eta bere familiarentzat estatu espainiarrera bueltatzeak:

> "Oso latza izan zen itzulera, ez geneukalako ezertxo ere, ezta garai batean genuen etxebizitza ere. Guk genuen etxebizitza, sindikatu bertikalena. Nire aitak arreba bati laga zion, ez baikinen legez joan handik, eta hark seme-alaba ugariko familia bati laga zion. Etxebizitza bat alokatu genuen Basauriko San Migelen. Ez ginen egoera onean. Nire gurasoek ez dute inoiz ere beren jabetzako etxebizitzarik izan, ez zuten inoiz ere berreskuratu aurreko egoera." *(Igor)*

Bestalde, **harrerako herrialdean zituzten bizi-baldintzen gainean galdetuta, pertsona errefuxiatuak bat etorri dira pertsona erbesteratuek adierazitako gauza askorekin.** Hemen ere, askotarikoak izan dira bizipenak, zailtasunak eta/edo aukerak.

Hori horrela, pertsona errefuxiatu batzuek adierazten dute estatu espainiarrera etortzean hobetu egin direla beren bizi-baldintza materialak eta ez-materialak, bai beraientzat, bai etxean geratu zitzaizkien senideentzat. Horren arrazoia da hilaren amaieran, zailtasun handiak izan arren, dirua bidal dezaketela etxera, eta etxekoen gastuen zati bat ordaintzen lagun dezaketela:

> "Bestelakoa da egoera, bai. Hemen iturri bat dut, gauza lagungarri asko, eta, garbigailuko botoiari sakatuz gero, arropa garbitzen dit. Han ez, han dena eskuz egin behar da. […] Hemen errealizatuta sentitu naiz. Denbora hobeto antolatzeko eta gauza gehiago egiteko aukera ematen dizute hemengo etxetresna elektrikoek." *(Amina)*

Horren harian, pertsona errefuxiatu batzuek adierazi dute **beren osotasun fisikoaren gaineko segurtasun handiagoa dutela harrerako herrialdean**. Horren arrazoia da hiltzeko beldurra bizi izan dutela, bai beren jatorriko herrialdean, bai harrerako herrialdera iristeko bidean. Leilaren eta Gustaven bizipenak enblematikoak dira **egoera zail eta traumatikoak bizi izan zituztelako bidean. Indarkeria handiko egoerak.**

> "Seguru sentitzen nintzen, banekien ez nindutela erailko. Banekien lana topatzeko zailtasunak eta bestelako arazoak izango nituela, baina beldurrak arazo izateari utzi zion. Ez nion beldurrik nire edo nire semearen heriotzari. […] Eskubide asko falta zaizkie hemen emakumeei, baina bakarrik bizitzeko aukera dago hemen. Inork ez zaitu erailko horregatik." *(Leila)*

> "Pozik nintzen bidaia egin ondoren, banuen itxaropenik. […] Benetan nengoen oso pozik […], konfiantzaz beterik. […] Pentsa nolakoa izan zen nire lehen irudipen hura." *(Gustave)*

Beste pertsona errefuxiatu batzuek, ordea, **egoera ekonomiko eta lan-egoera prekarioak bizi dituztela adierazten dute**. Augustinen egoera da horren adibide, estatu espainiarrera iritsi ostean nabarmen okertu baita Kongoko Errepublika Demokratikoan zuen egoera sozioekonomikoa. Egoera horretan daude Rosario eta Amparo ere, hemen ez delako, haien ustez, behar bezala baloratzen beren aurretiazko prestakuntza eta/edo lan-eskarmentua.

> "Gaur hemen ari naiz lanean, baina ez naiz gustura ari. Ikasketak ditudalako, administrazio-buru izan naiz 10 urtez ospitale handi batean; pribatua zen, baina handia. Eta nire seme-alabak zaintzen zituen neska bat nuen etxean, eta orain etxeko langilea naiz… Hau ez da nirea, ez dut hemen ikusten neure burua" *(Augustine)*

> "Norberak demostratu behar izatearen sentipena izatea oso gogorra da. Oso konplikatua da. Zurekin gogoratuko badira, paparrean curriculuma eraman behar duzu etengabe, hori da sentsazioa. Uneoro frogatu behar duzu nor zaren, zer eskarmentu duzun, zer ekarpen egin dezakezun. Oso gogaikarria egiten zait oraindik. Ulertzen saiatzen naiz; lehen munduko kide izatean ematen dizuten prestakuntzarekin loturik dagoela uste dut, iruditeria kolonizatzaile horrekin. Iruditeria horrekin eteteko betebeharra dute bertakoek. Oso zaila egin zait harreman egiaz horizontalak egitea, jendeak oraindik pentsatzen du niri gauza asko erakusteko obligazioa duela, ez didatela entzun behar nire praktiketan." *(Rosario)*

> "Irakasle nintzen Kolonbian. Gutxieneko harreman-eremu bat nuen hitz egiteko, iritziak trukatzeko, hemendik hara joateko. Eta Suedian beste eremu batean atera behar izan nuen bizibidea. Eremu berria zen niretzat, garbiketarena." *(Amparo)*

Horrez gainera, lanari eta alderdi ekonomikoari begiratuta, **pertsona errefuxiatu askok adierazten dute gogorra egin zaiela beraiena ez den herrialde batean bizitzea eta oso gogaikarria egin zitzaiela estatu espainiarrera iristeko egin behar izan zuten bidaia luzea. Neke fisiko, emozional eta psikologiko handiak bizi izan dituzte**; eta horri hizkuntza ez jakiteak, kode kulturalak ez ulertzeak eta hartu dituen herrialdeari buruzko informazio gutxi izateak dakarren desorientazioa gehitu behar zaio. Horrela kontatzen dute Amparok eta Leilak:

> "Madrilera iritsi nintzenean Ekialde Ertainetik, oso bestelako gizarte batera heldu nintzen. Ez nekien hizkuntza eta ez nuen inor ere ezagutzen. Nire semea hiru astez aritu zen negarrez bere lagunekin eta etxekoekin bueltatu nahi zuelako. Esaten zidan ez zuela gaztelania ikasiko, ez zuela jendeak esandakoa ulertzen." *(Leila)*

> "Aldaketa asko izan ziren. Niretzat handia izan zen aldaketa kulturala. Kultura ireki batetik nentorren ni; gu gauzak adieraztekoak gara, hitz egiten dugu, espazioak geureganatzen ditugu, bai? Eta Suediako kultura bestelakoa da; eta kode berriak ikasten hastea, txoke handia da hori. Klimarena ere talka gogorra izan zen, lazgarria. Eta hizkuntza…" *(Amparo)*

Deigarria da **aktibista batzuek** zer oroitzapen konpartitzen dituzten Europara iristeko bizipenaren gainean. **Hasiera batean, kontinentearen gaineko irudi ona zuten, printzipio jakin batzuekin bizi dela uste baitzuten**, hala nola demokrazia eta askatasun eta eskubide politikoak eta sozialak. Pentsatzen zuten, gainera, bizi-baldintza onetan biziko zirela. Alabaina, laster aldatu zitzaien pentsamolde hori. Haien esanetan **dezepzio handia bizi izan zuten ikusi zutenean ez dela betetzen espero zuten hura**. Horren ondorioz, etsipenean erortzen dira horietako batzuk eta, une jakinetan, beren bizitzarekin aurrera egiteko eta beren aldarrikapenekin jarraitzeko indarrak ahitzen zaizkie. Horren gaineko gogoeta egiten du Samuelek.

> "[…] hori guztia konponduta zegoela uste nuen… Europan nengoen. Demokrazia zegoela, errespetua zaiola gizakiari, herrialde askoz ere aurreratuagoak… Oso-oso pozik nengoen. Baina hiru urte eta hiru hilabete eman nituen Melillan asilo-eskatzaile... Eta egun batean guardia zibil batek Kamerungo enbaxadaren aurrera eraman gintuen identifikatzeko, eta protesta egin nuen. Esan nion ezin dela hori egin nire moduko asilo-eskatzaileekin... Hauxe pentsatu nuen egun horretan: ´Ene, dena berdin mundu osoan'; ez dagoela etxetik kanpora ihes egin beharrik, zure herria atzean utzita. Afrika, Europa; dena berdin… Dena galdu nuen, dena, ametsa, itxaropena, dena…" *(Samuel)*

Espero zutena betetzen ez denean **dezepzioa bizi duten arren,** eta zenbait unetan antsietatea edo depresioa izan dezaketen arren, esan behar da **pertsona errefuxiatu batzuek alderdi positibo batzuk ikusten diotela beren bizipenari.** Zailtasunak zailtasun, Hadyk adierazten du **asko ikasi duela errefuxiatu-garaiko bizipenarekin,** beste kultura eta errealitate batzuk ezagutu dituelako, bizitzari beste begi batzuekin begiratzeko aukera eman diolako, lanerako trebetasun eta ikasketa berriak eskuratu dituelako eta beste herri batzuen borrokak ezagutu dituelako. Ildo horretako adierazpenak egin dituzte Arantzazuk, Samuelek eta Rosariok.

> "Malin ez dut inoiz ere lan politikorik egin, ez naiz aktibista izan, baina kulturen, pertsonen eta giza eskubideen gaineko gauza asko ikasi ditut hemen. Ikasi egin dut horrekin guztiarekin; eta badakit ikasitako hori beste gauza asko ikasteko erabiliko dudala noizbait" *(Hady)*

> "Eta erbesteratzeetan hainbeste min dagoenez, ez dut inoiz ere ulertu nire etxean tristurarik ez izatea, ez da inoiz ere tristurarik egon. Oso umoretsua zen nire aita, nortasun handikoa. Musika eta poesia ugari genuen etxean, eta horiek gailentzen zitzaizkien minari" *(Arantzazu)*

> "Gauza asko ikasi genituen bide horretan, abentura horretan. Begira, Kamerunetik irten behar baldin baduzu, erlijio kristaua nagusi duen herrialde batetik, Nigeriako iparraldetik igarotzen baldin bazara, eta herrialde musulmanak zeharkatzen baldin badituzu, asko ikasi beharrean zara leku horietara egokitzeko eta lasai ibiltzeko: erlijioen gaineko gauzak ikasi behar dituzu, hizkuntzak, musulmanekin nola jokatu, gauza asko." *(Samuel)*

> "Nire egoerak dakarzkidan gauza onei begiratzen saiatu naiz. Hori egin ezean, ez duzu aurrerabiderik. Hori egin ezean, ezin duzu ikusi gertatzen zaizuna zerbaitegatik eta zerbaiterako gertatzen zaizula, eta aukera baten moduan begiratu behar diozula. Gain hartu behar diozu etsipenari eta zure bizitzaren kontrola eskuratu behar duzu, ezta?" *(Rosario)*

Norberaren bizipenaren alde onari begiratzeko asmotan, elkarrizketatutako pertsona batzuek urrats bat gehiago eman dute, eta adierazi dute **beldurrei eta zailtasunei aurre egiteko prest daudela, eta beraien esku dagoen guztia egingo dutela maite dituztenei laguntzeko eta haiei bizitza hobea eskaintzeko**. Hauxe dio Hadyk:

> "Haien hutsunea sentitzen dut, ikaragarria da hutsunea, baina hemen haien premiak asetzen laguntzeko nagoela pentsatzen dut. Eta aldaketa bat gertatzen da hor; nire ama edo nire alaba zerbaiten premian baldin badaude, deitu eta esan egiten didate. Posible baldin badut, dirua bidaltzen diet. Oso inportantea da niretzat haien gastuak estaltzea eta hobeto bizitzeko aukera ematea." (Hady)

2.2. ONDORIOAK FAMILIAN

Egiaz, **errefuxiatuek eta asiloa hartutakoek bizi duten deserrotzeak ahuldu egiten ditu familia-harremanak, eta, zenbaitetan, eten egiten ditu harreman horiek**. Herrialdeen arteko komunikazioak zailak baldin badira edo joan behar izan duenaren bidea oso luzea izan baldin bada, posible da senideek joan zaienaren berririk ez izatea luzaroan. Egoera horiek, zenbaitetan, eragin handia izaten dute familia-harremanetan. Egoera horren erakusgarri agerikoa da Gustavek bizitakoa. Afrikako hainbat herrialdetan zehar egin duen ibilbide luzearen ondorioz, ez du inolako harremanik izan 10 urtean Kongoko Errepublika Demokratikoan duen familiarekin. Minak eta etsipenak bultzatuta, hura modu sinbolikoan ehortzi zuen bere familiak. Estatu espainiarrera iritsi zenean soilik lortu zuen Gustavek berriro bere familiarekin harremanetan jartzea.

Hori bera gertatzen da pertsona erbesteratuekin eta beraien ondorengoekin. **Erbesteko urteetan** izandako distantziak, komunikatzeko zailtasunak eta igarotako denbora luzeak **arrasto sakona uzten dute, noski, jatorriko familiekiko harremanetan.**

> "Batik bat, familiaren hutsunea igarri dut. Ez nuen aitona-amonik. Fusilatu egin zuten nire aitona, eta beste guztiak hemen geratu ziren. Han bizi ziren espainiar batzuek izan ziren nire aitona-amonak: Joaquín, militar errepublikar bat, eta Goyi, haren emaztea. Gurasoek, nik eta nire arrebak osatzen genuen familia. Nik ez nuen familiarik izan. Ez dut familiarik izan hona iritsi arte. Eta hauek gogorarazi nahi izaten zizkidaten: zure lehengusu Iñigo, Alfonso… Baina ez nituen gogoan." *(Igor)*

> "Gertatzen da erbestean zaudenean… Nire amak bere ahizpari utzi zizkion bi alabetatik, Montevideora etorri zen zaharrena 48an, Atlantikoan minarik ez zegoenean. Baina bigarrena ez zen inoiz ere etorri, izebarekin geratu zen, eta hori gurutzea izan zen amarentzat (bere bizitzan). Eta Bizkaira etorri zen bere alabarekin gera zitekeen ikustera, baina ezinezkoa zen ordurako… Aitak hau esaten zuen, bere mina arintzeko akaso: bere alaba ondo zegoela hemen, Donostian, izebak maite zuela eta hark ia bere ama bezala maite zuela izeba. […] Gerrak, beraz, alaba bat kendu zion nire amari. Berreskuratu zuen alaba zaharrena, baina zortzi urtez hura ikusi gabe egon ondoren. Kostu hori izan zuen gerrak nire gurasoentzat, izan zuten galera ekonomikoa baino askoz ere handiagoa." *(Arantzazu)*

Horrez gainera, **jatorriko familiekin izaten diren desadostasunak** nabarmentzen dituzte elkarrizketatuek, distantziaren eta pertsona errefuxiatuek eta erbesteratuek beren bizileku berrietan ezinbestean bizi dituzten aldaketen ondoriozkoak horiek ere. Berariaz, **elkarrizketatutako emakume errefuxiatuek oso desadostasun handiak izan dituzte beren familiekin**, estatu espainiarrera iritsi ondoren, r**ol berriak hartu eta beren burua beste begi batzuekin ikusten hasi direnean**. Kulturen arteko talkaren ondorioz, Leilak desadostasun handiak izan ditu Kurdistan iraniarrean bizi dituen aitarekin eta amarekin, beren alabak hartu duen rolak ez dituelako betetzen haien kulturaren eta erlijioaren aginduak. .

Pertsona erbesteratuek estatu espainiarrera iristean izan dituzte desadostasun edo txoke handienak. **Erbestean eman duten denboraren** eta bizipen horrek eragin dizkien aldaketen ondorioz, **desadostasun kulturalak eta ideologikoak sortu zaizkie, zenbaitetan, senideekin eta lagunekin**. Horrela azaldu dute Igorrek, Arantzazuk eta Ana Maryk:

> "(Nire gurasoak) Errusian ezagutu zuten elkar eta han ezkondu ziren. 1956an itzuli ziren. Nire ahizparekin haurdun etorri zen ama. Ezkontza zibila egiten zuten, eta ez zuen baliorik Espainian. Arazoak izan zituzten familiarekin ere; nire aitaren familiarekin, adibidez, oso fededunak baitziren. Ama haurdun eta zibilez ezkonduta izan arren, nire izebak ez zien logela berean lo egiten uzten." *(Igor)*

> "Bilbo, 1956an, beldurgarria zen. Kea zerien Labe Garaiei, eta neronek ere, ekologiaz ezer jakin gabe, ikusten nuen hura atentatu bat zela, hodei beltzak pilatzen baitziren. Negargarria zen hori niretzat. […] Oso jende pobrea ikusten nuen Euskadin. Gerraostea zen. Gogoan dut egun batean bikiniarekin joan zela neska bat hondartzara, eta urte haietan hori aberrazioa zen hemen. Guardia bat joan zen haren atzetik eta hondartzatik atera zuen. Uruguaitik etorrita, zentzugabea zen hori. Eta ikusi nuen nola atera zuten neska bat elizatik, besoak agerian zeramatzalako, mantelinik gabe. Zentzugabea iruditzen zitzaidan, Uruguai oso herrialde demokratikoa zelako garai hartan, oso aurreratua, eta han ez zen horrelakorik ikusten." *(Arantzazu)*

> "Ondo nengoen hemen, baina, liburuan esaten dudan moduan: 'Historiaurrea zen Espainia'. Bi etxebizitza eta hiru bainugela zituen etxea utzita etorri nintzen Mexikotik. Ez ginen aberatsak, maila ertain onekoak baizik, baina aza-usain nazkagarriko etxe

batera etorri behar izan genuen, aza-usaina zuen etxe osoak egun guztian. Etxe zaharra zen, bainugelarik gabekoa. Nire lehengusinarekin egin behar nuen lo, eta han niretzat bakarrik nuen logela bat. Oso gogorra izan zen hori guztia." *(Ana Mary)*

Hala ere, **familia barneko harremanen galera eta sortzen diren desadostasunak alde batera utzita**, elkarrizketatutako pertsona **guztiek**, errefuxiatuek eta erbesteratuek, **aitortzen dute egoeraren ondorioak oso latzak direla geratzen diren pertsona maiteentzat**. Alde batetik, hor dago, airean, **berriro elkar ez ikusteko arriskua**, eta horrek **sufrimendu eta min handia eragiten die**, bai pertsona errefuxiatuei, bai haien senideei. Inpaktu edo eragin hori handiagoa da seme-alaba txikiak utzi behar izaten direnean. Hori gertatu zitzaien Augustineri, Rosariori eta Hadyri. Antzekoa da Aminaren eta Ana Maryren amaren egoera, kezkaturik baitaude beren adineko gurasoen egoerarekin.

"Ezin okerrago [sentitzen nintzen]. Oso gaizki, oso gaizki, oso gaizki. Ezin lorik egin, ezin edan, ezin jan. Negar eta negar. Lana galdu nuelako, seme-alabarik gabe nengoelako. Nire seme-alabak, nire familia, nire adineko ama utzi nituen." *(Augustine)*

"Nire amarekin egotearen hutsunea sentitzen dut gehien. Nire amak behar dituenak egin ezina. Zor pertsonal hori dut amarekin." *(Amina)*

"Aita lanean zen orduan eta ezin zuen erretiro-saririk eskuratu, ezin zion lan egiteari utzi bueltatzeko, baina nire amak ezin zuen gehiago jasan. Marina, nire ahizpa zaharrena, ezkondu egin zen, eta erdikoak, Estherrek, senargaia zuen. (Nire amak) ikusten zuen ezin zuela bueltatu, bizirik zituen gurasoak oraindik, eta ia 30 urte ziren ikusten ez zituela. Euskadirekiko herrimin handia zuen, beti aipatzen zituen bere herria eta euskal kontuak bere idatzietan. Istripu bat izan genuen, eta hilzorian izan zen nire ama: hautsirik zituen hamabi saihets, pelbisa eta bi besoak puskaturik. Itzultzeko premia larriagotu zion horrek. Aitona-amonen etxera bidali zidan lehenik, Gabonetan, eta udaberrian etortzeko asmoa zuen hark. Baina Francoren erregimenak, ordura arte nahikoa sufriarazi ez, eta ez zion aberrira itzultzeko baimenik eman une horretan. Baina gomendio-gutunak erabilita eta sartzeko mila eskaera egin ondoren, itzuli egin zen azkenik, bi urte pasa ondoren itzultzeko eskaera egin zuenetik." *(Ana Mary)*

Bestalde, **maite dituzten pertsonen gaineko ondorioak aztertzean, adierazten dute haien bizia arriskuan izan daitekeela, pertsona errefuxiatua edo erbesteratua mehatxatua edo jazarria izan zen lekuan geratu direlako**. Beldur dira, esaterako, ihesera behartu zituen gobernuak edo talde armatuak mendeku-ekintzak egin ditzaketelako beraien senideen edo lagunen aurka. Bereziki azpimarratu dute hori Leilak, Augustinek eta Samuelek.

"Oso arriskutsua da Irango gobernua; behin baino gehiagotan atxilotu dute nire anaia, mahai batean jarri eta ordubetez edo bi orduz galdekatu dute. Emakumeei buruzko telebista-saio batean azaldu izan naiz. Hau esan diote nire anaiari: 'badakigu non dagoen, haren semeak X urte ditu, badakigu zer ikastetxera joaten den, zer egiten duen, esaiozu zaintzeko bere burua, isiltzeko, ahoa ixteko.' Beraz, hemen bizi garen arren, beti gaude arriskuan Irangoaren moduko gobernuen aurka ari garen errefuxiatu politikoak, gobernu horiek ez baitute kontrolerako eta torturarako mugarik." *(Leila)*

"Nire anaia bat ere erbesteratu egin da niri gertatu zaindanarengatik. Arazoak izan ditu. Hala esan diote: 'zure arreba ikusten ez badugu, zuri kobratuko dizugu arau-urraketa, delitua.'. Ni ez banago, zergatik izan behar ditu arazoak nire anaiak? Angolan dago. Izena aldatu du, gauza bera gertatuko zaio. Dena utzi du, emaztea, seme-alabak, lana…" *(Augustine)*

"Arazo handia izan zen niretzat. Sistema horrek berak bi edo hiru aldiz egin zion eraso nire anaia zaharrari jendaurrean; errepresio erabatekoa erabili zuen nire familiaren kontra." *(Samuel)*

Elkarrizketatutako beste pertsona batzuek adierazi dute **distantziak eta deserrotzeak ez dituela erasan beren familia-harremanak**. Aitzitik, **lehen baino harreman sendoagoak dituztela esaten dute, bai oztopoen aurrean batu egin direlako, bai komunikazioari eusteko ahalegin kontzientea egiten dutelako**. Pertsona horien esanetan, berebiziko garrantzia du beraientzat familiak ematen dien laguntza eta babes baldintzarik gabekoak. Lasaitasuna eta aurrera egiteko gogoa ematen die. Hori adierazi dute Augustinek eta Hadyk (eta berriro azalduko da egoerei aurre egiteko estrategiez ariko den atalean):

> "Nire familiaren eta nire lagunen aholkuak eta babesa. Horrela esaten didate: 'animo, ezetz, geratu hemen, behar zaitugu. Bizitzea duzu onena. Ez da ezer gertatzen dirurik edo lanik ez baldin baduzu; zu lasai egotea nahi dugu, ikusiko dugu-eta elkar noiz-bait…' Eta nire alabak ere bai…" *(Augustine)*

> "Asko lagundu didate nire amak eta nire alabak. Arazoren bat baldin badut, hobeto sentitzen naiz haiekin hitz eginda, atzendu egiten da arazoa. Batik bat nire amak, gauza bera esaten baitit beti: pertsonak den bezalakoa izan behar duela esaten dit, ez duela ezertarako aldatu behar, eta laguntza handia ematen dit bere aholkuekin. […] Gainera, laguntzen ari natzaiela pentsatzen dut, eta horrek asko laguntzen dit." *(Hady)*

2.3. ONDORIOAK PERTSONAREN NORTASUNEAN

Egindako elkarrizketek argi eta garbi erakusten dute **errefuxiatuen eta asiloa hartutakoen bizipena traumatikoa dela, eta eragina duela haien nortasunean eta pertsona horiek ordutik aurrera beren buruaz izango duten iritzian**. Horixe bera gertatzen da beren gauzak kontatzeko erabiltzen dituzten erreferentziekin. Pertsonen nortasuna, ezinbestean, aldatu egiten dela dirudi, eta aldaketa horren eragile izan daitezke, besteak beste, mina, sufrimendua, itxaropena, etsipena, hartu dituen herrialdean bizi dituzten kode kulturak berriak, eta aukeran edo ezinbestean betetzekoak dituzten rol berriak. Erruduntasun-sentipena eta lotsa ere izan daitezke aldaketa horren eragile.

Hauxe dio Ainarak, erbesteak bere aitonarengan eta amonarengan izan zuen eragin traumatikoaz hitz egitean:

> "Bere bizi guztiko disgusturik handiena izan zen, hemen geratu nahi zuen, hori uste dut. Bueltatzeko gogoa adierazi zuen beti. Aititek ez zuen inoiz ere bueltatu nahi izan, baina amama Bilbo buruan zuela bizi zen han. […] Eta hain handia zuen hemen egoteko premia… Eta alferrik, ez zuen inoiz ere gogoko izan han bizitzea… Baina ezin, trauma hori baitzuen aititek. Ez zion nahi adina aldiz etortzeko eragozpenik jarri, baina beti bizi izan ziren han. […] Aitite ez zen bueltatu. Beti esan dut zerbait txarra, oso txarra gertatu zitzaiola hemen gerra-garaian, berriro Bilbo eta Espainia ez zapaldu nahi izateko. Pentsa, Venezuelara iritsi zenean, naziotasuna aldatzen saiatu zen venezuelarra bakarrik izateko, naziotasun bikoitzari uko eginda. Uko egin nahi zion espainiar naziotasunari." *(Ainara)*

Horren gaineko gogoeta hau egin du Arantzazuk:

> "Etsiturik zetozen, bazter-bazterreko herritarrak ziren, dirurik gabeak; beno, zuten guztiaz gabetuak, naziotasun espainiarrik gabeak, baina, noski, gorriak, separatistak eta judutar-masonikoak izatearen orbana zeramaten. Hau da, lur gaineko azken gorozkiak ziren une hartan." *(Arantzazu)*

Hadyk, bere bizipenari begiratuta, nabarmendu du sufritutako guztiaren ondorioz dela gaur egun den modukoa: kementsuagoa, saiatuagoa eta baikorragoa. Sufrimendu hori guztia pairatu arren, Malin dituen alabaren eta amaren arduradun dela sentitzen jarraitzen duela dio. Hadyk egin duen moduan, Aminak,

eta beste **pertsona askok, beren gain hartu dute hornitzaile-lana, pertsona maiteek jatorriko herrialdean izan dezaketen ongizatearen ardura; eta horrek ematen dio zentzua, neurri handi batean, beren egoerari.**

> "Sufrimenduak behartu nau nahi naizen modukoa izatera, baina gogorra da, inork ez baitu sufritu nahi. […] Ez da sufrimendua erabat ahaztu behar, lagungarri baitzaigu bizirauteko." *(Hady)*

> "[…] Beti sentitu dut baliagarri naizela hemen. Nire familiari ahal dudan moduan laguntzen ahalegindu naiz. […] Norbait gaixotzen bada eta botikak behar baditu. Ekarpen txikiak dira, jakin badakizu zure familiak lagungarri izango dituela, eta horrek zentzua ematen dio urrunean bizi duzunari. Ez nago alferrik hemen, ez nago hala nahi dudalako. Badakit, nire herria independentea balitz eta errefuxiatua ez banintz, amarekin izango nintzela, nire etxean, oso familia batua baikara. Baina horrelako zerbait sentitzen duzu: misio bat betetzera irten behar izan duzula. Alde batetik, egoera baliatzen dut nire alabek prestakuntza bat eskura dezaten eta han ezinezko duten etorkizuna izan dezaten, eta, bestetik, etxean laguntzen dut, ahal dudan neurrian." *(Amina)*

Jatorriko herrialdean dituzten senideei laguntzeak eta haien ongizatea zaintzeak sor dakiekeen satisfazioa alde batera utzita, elkarrizketatutako pertsona batzuek nabarmendu dute **beren nortasunean, eta, bereziki, beren buruarekiko estimuan ondorio kaltegarriak izan dituela hartu dituen herrialdean beren lanbidean lan egiteko aukerarik ez izateak. Adierazi dute kolpe hori oso latza dela norberak aurretiaz lanbide-eskarmentu handia duenean edo goi-mailako ikasketak amaitu dituenean**. Etorkin izate hutsagatik kualifikazio apaleko lanak egin beharraren egoera mugatzaileak kaltea dakarkie beren buru-irudiari. Augustinek eta Rosariok gai honen gainean esan dituztenak jasotzen ditu 2.1. Erbesteratzearen ondorio pertsonalak izeneko atalak, baina egokia iruditu zaigu hona ekartzea Aminak gaiari buruz duen iritzia; izan ere, Euskadin ikasi du kazetaritza, baina ez du lan egonkorrik topatu oraindik.

> "Ez dut inoiz ere lan egonkorrik topatu, etxeetan aritzeko lanak aurkitu ohi ditut, baina derrigorrean egin beharreko lanak izaten dira, familiarekin dudan konpromisoagatik, baina lan horiek ez didate hazteko aukerarik ematen. […] Kanpokoak garenez, maiz, etxeetan lan egiteko eta pertsonak zaintzeko lanak egiteko bakarrik hartzen gaituzte kontuan, eta askotan egin behar izaten duzu lan gaitasun intelektual apalagokoak iruditzen zaizkizunentzat, baina kanpokoa zarenez, halako moduz begiratzen zaituzte, ba al dakit ba!, prestakuntza-maila apalagokoa bazina bezala." *(Amina)*

Emakume errefuxiatuek nabarmentzen dute izateko, ekiteko eta pentsatzeko aukera berriak ireki zaizkiela beren bizipenaren ondorioz. Horren arrazoia da **errefuxiatu diren bitartean ez dituztela hain zorrotz bete behar izan jatorriko gizarteetan**. emakume, emazte, alaba edo arreba diren aldetik, **ezartzen zaizkien rolak.** Hartzen dituen gizartea ere patriarkala den arren, ez dituzte erlijioari edo kulturari atxikitako eredu tradizional jakinak bete behar, eta horrek **arduteko eremu berriak zabaldu dizkie.** Emakume guztiek adierazten dute onuragarria dela hori beraien nortasunarentzat.

> "Hemen bizitzean, ez dut inoren ama, arreba edo alaba izan beharrik, ez dut ezer izan beharrik; ni neu naiz, goizero, jaikitzen naizenean. Eta emakumeek askotan, edo bizitzan gehien-gehienetan, ez dugu ezarri zaizkigun roletatik kanpo jokatzeko aukerarik izaten. Hori izan dut etekin handiena: pertsona adoretsu eta emakume gisa ikustea neure burua. […] Eta oso arraroa egiten zait, ez bainebilen horren bila edo horren eske. Eta horrek ez du esan nahi nireak maite ez ditudanik. Zaila da, baita ere, horrekin bakeak egitea" *(Rosario)*

> "Asko aldatu ninduen. Nire herrian ez nintzen oso kontziente, ez nuen ikusten borroka sozialak eta politikoak ez ninduela emakume moduan aintzat hartzen." *(Amparo)*

> "Ahalduntzeko eta egunez egun hazteko modua dut hemen geratzea." *(Amina)*

> "Bai, bakarrik bizi naitekeen emakumea naiz orain; asko da hori. Asko da handik datorren emakume batentzat. Beti egiten dizute hori txikitatik. Pentsatzen duzu, emakume zarenez, ezin duzula bakarri bizi, ezin duzula bakarrik bizi etxe batean, inoiz ere ez. Baina orain ez naiz horrelakoa; badakit bakarrik bizi naitekela, bakarrik egin ditzakedala gauzak, ez dudala inoren laguntzarik behar. […] Hemen beste pertsona bat naizela sentitzen dut, bestelakoa, indartsuagoa. Egia da zauri handiagoa dudala, baina autonomoagoa ere banaiz. Eta horrek balioa dakarkit…" *(Leila)*

Zenbaitetan, **errefuxiatu-izaera eskuratzean, egoera horretara iritsi aurretik baino gogo eta konpromiso handiagoa ageri dute gizarte-gaiekin eta justiziarekin, bai norberari dagokionean, bai gainerako pertsonei dagokienean**. Horrela azaltzen dute Leilak eta Samuelek.

> "Ez diot inoiz ere borrokatzeari utziko. Hemen nago eta emakume kurduen ahotsa izan naiteke hemen. Arriskuan daude haiek eta, nik lasai hitz egin dezakedanez, zertxobait libreagoa den gizarte batean nagoelako, hitz egin beharrean naiz. Ez badut hitz egiten, orain arte egindakoek eta bizi izandakoek ez dute zentzurik izango." *(Leila)*

> "Agiri bat baino ez nuen nahi, han (Nigeria) legez bizitzeko aukera emango zidana, hori baitzen borrokan jarraitzeko bidea, behar dugun aldaketaren alde egiteko eta egitura egoki bat sortzeko. Itxaropen pixka bat izateko, itxaropena pizteko guztiongan. […] Garai hartan indarrak batu nahi genituen Bakasiko talde batekin. Leku ederra da hura, petrolio ugari duena. Nigerian, orduan, talde politiko baten buru izan nintzen, pertsona horiekin elkartzen saiatzeko eta dena (petrolioa) hangoa izan zedin ahalegintzeko." *(Samuel)*

Frankismoan erbesteratutako pertsonek beren aktibismo politikoarekin jarraitu zuten, deserrotzeari eta distantziari aurre eginda. Erbesteratutako pertsonen ondorengoei begiratuta, pertsona horietako batek, Ana Maryk, adierazten du pertsona sentikorragoa dela orain eta pertsonei laguntzeko konpromiso handia duela. Horren erakusgarri da boluntario-lanak egiten dituela gaur egun, etxerik gabeko pertsonei aterpea ematen dien elkarte txiki batean. Harremanak izaten ditu, beraz, pertsona migratzaile eta errefuxiatuekin. Hauxe dio Ana Maryk bere gurasoei buruz:

> "Bai, bai, oso aktiboak izan dira nire gurasoak […] Nire aita sozialista zen eta nire ama Izquierda Republicana de Euskadi alderdiko kidea zen Mexikon. Gaztetan anarkista izan zen, halakoa zuen familia guztia; haren aita eta bere anai-arrebak. Katalunian zela, bere ideiak birpentsatu zituen, FAI[8], alderdiak bultzatuta. Beste ideia batzuk zituen Mexikora iritsi zenerako. UGT[9], sindikatuko izan zen, beti izan zen sozialista." *(Ana Mary)*

Beren aktibismoaren ondorioz, beren herrialdea eta beren lanak utzi beharrean izan ondoren, erruduntasuna eta lotsa bizi dute pertsona batzuek errefuxiatu diren denboran. Hori ondorioztatzen da, esaterako, Amparo eta Rosario aktibista kolonbiarren kontakizunetatik. Haien esanetan, errudun sentitzen dira, uste dutelako, jazarpenetik ihes egin eta beren biziak babestuta, beren ongizatea lehenetsi dutela, jendartearen ongizatearen eta beren burkideen biziaren aurretik. Errudunetsi egiten dute beren burua, lotsa sentitzen dute, eta egoistak direla uste dute, borroka egiteari utzi diotelako. Hori sentitzen dutela azpimarratzen dute, nahiz eta, estatu espainiarrean dauden denboran, borroka horien alde mobilizatzen eta beren aktibismo-lanarekin jarraitzen duten. Hauek dira Amparoren eta Rosarioren hitzak:

> "Luze joan zitzaidan alderdi hori landu arte. Oso gaizki pasa nuen hegazkinean, hau esaten bainion neure buruari: 'irteten ari naiz, irten da nire kidea… Eta, zergatik ezin izan zuten irten hainbat pertsona eraildako eta desagertuk? Zergatik dut pribilegio hori? Eta lan handia egin behar izan nuen psikologoarekin eta psikiatrarekin, ezin nuen alderdi hori landu, ezin izan nuen dolu hori egin denbora luzean, min ematen zidan…

8 Federación Anarquista Ibérica da FAI siglaren esanahia.

9 Unión General de Trabajadores sindikatuaren sigla da UGT.

Eskubide hori izan dut, baina zergatik ez zuten eskubide hori izan beste askok? Eta sufritu egiten nuen, arriskuan geratu zirelako beste asko…" *(Amparo)*

"Errefuxiatu kolonbiarrek erruduntasun-sentimendu handia izaten dute hemen geratzen direnean. […] Nire erakundeari begira, nire ardurapeko jende asko bazterrean uztea modukoa izan zen. […] Erreferentziazko pertsona nintzen pertsonen aurkako minen biktima askorentzat. Nahikoa gogorra izan zen haientzat urtebeterako nindoala gainditzea, baina ez bueltatzea erabaki nuenez, are latzagoa izan zen haientzat. Abandonatu egin nituela zirudien, eta oso gaizki sentitu nintzen. Nekeza egin zitzaidan horri aurre egitea. Horregatik, bakarrik eta lotsaturik sentitzen naiz askotan." *(Rosario)*

Lotsari edo erruduntasunari begiratu gabe, Samuelek nabarmentzen du **beste pertsona batzuenganako mesfidantza handia eta paranoia puntu bat sorrarazi zizkiotela erregimenaren jazarpen eta mehatxu etengabeek**. Oso mesfidatia bihurtu zen, eta beti zegoen izuturik.

"Une horretan, egoera horretan, utzi egin nion pertsona askok ezagun zuten Samuel izateari. Espetxe ireki batean nintzela uste nuen, baina ez nuen ate irekia ikusten. Beldur handiak sortu zitzaizkidan. Ez nuen jendearekin hitz egin nahi, ez nekielako nor zen nor, eta beti nenbilen beldurrez. Mesfidantza handia nuen eta etsipen handia sistema politikoarekin. Kamerunen dena (gobernua) babestu eta haren ankerkeria iraunarazteko dagoela zirudien. Hortaz, ez nintzen inorekin fio, ez nuen konfiantzarik erakundeengan." *(Samuel)*

Erbesteratuen ondorengoek adierazten dute beren gurasoek eta aitona-amonek maiz helarazi zietela beren, **herrimina**.Transmisio hori handia izan zen, eta ondorengo horietako batzuek diote lehen pertsonan sentitu eta bizi izan dutela deserrotzea.

"Idealizatuta nuen nire herria. […] Askotan entzuten nuen Kas edariaren aipamena, eta Espainiara etorri bezain laster, Mirandara iristean, urdaiazpiko-bokadilo bat eta limoizko Kas bat eskatu nituen, demasak baitziren niretzat. Txirrindularien eta futbolarien argazkiak nituen logelan, idealizatuta nuen. Gurasoek kontatzen zizkidatenak ziren nire erreferentzia bakarrak." *(Igor)*

"Noski, arazoa da errefuxiatuen seme-alabena. Nire lagun batek […] esaten zuen leku askotako errefuxiatuen seme-alabak biltzen zirela noizean behin Londresen, eta esaten zuen guztiok geundela ukituta, gurasoek beti baitzuten bueltatzeko asmoa gogoan, eta ez ziren bete-betean integratzen. Guri ere asko erasan zigun egoera horrek. Ez nintzen inoiz ere mexikarra sentitu, eta, hemen, nongoa naiz? Hemengoa ere ez… Eta horrek, bai, deserrotze-sentimendu handia sorrarazten du." *(Maitena)*

"Beti esaten dut, hainbat lekutan bizita, bizitza zoragarria izan dut, jende bikaina ezagutu dut. Baina ez naiz inoiz ere neskatikoa izan, ez nerabe eta ez ezer. Oso goiz iritsi behar izan nuen heldutasunera, erbestean galtzen baitzara hala egin ezean. Desintegratu egiten zara." *(Arantzazu)*

"40 urte behar izan nituen etortzeko. […] Beti genuen gogoan, honen herrimina ere bagenuen. Baina, tira, izan da etorri ezinik geratu den jenderik. Beno, ezin izan dute etorri buru-belarri aritu direlako lanean eta familiarekin, eta negozioak zituztelako. Nahikoa zaila da, berez, hura guztia uztea. […] Nire anaia zaharrenak, esaterako, 7 seme-alaba zituen. Etorri nahi zuen, baina honela zioskun: ´bai, baina, nora noa ni 7 seme-alabekin?." *(Kepa eta Josu)*

Beste pertsona batzuek, berriz, kontrako noranzkoan bizi izan dute deserrotzea; hau da, estatu espainiarrera iritsi direnean, beren familiaren jatorriko lekura. Ana Maryren amaren bizipenek eta Ana Maryk berak 15 urte zituenean bizitakoek erakusten dute zer den **jatorriko herriaren eta asiloko herriaren arteko errotze-deserrotze gurpil-zoro batean bizitzea**. Egoera dikotomiko hori bera bizi izan du Arantzazuk.

Honela kontatzen du Ana Maryk bere bizipena:

> "Etortzean, harrera egin zidan jendeak. Izan kontuan Tolosako lehen atzerritarra izan nintzela; gerora, venezuelar bat etorri zen, erbesteratuen alaba hura ere, baina ale arraroa nintzen ni, oso bitxia. […] Denbora batean hitz egin ondoren, hauxe esaten zidaten: "ez dizut ezertxo ere ulertu". Oso bitxia. Ale bitxia nintzen." *(Ana Mary)*

Hau esaten du bere amaren bizipenaren gainean:

> "[…] Ez zen utzi zuen hura. (Nire amak) asko sufritu zuen horrekin, jendeak berarekin hitz egiteko beldurra baitzuen. Erbestetik itzulitako gorria zen. Eta handia zen beldurra orduan, Franco bizirik zen oraindik. Beraz, hasieran jende gutxik hitz egiten zion Tolosan, eta uzkur ziren nire aitak Euskadiko Diziplina Batailoian hartutakoak ere. Beldur zen jendea. Gauzak aldatu ziren "La Voz de España" erregimenaren egunkarian argitaratzen hasi zenean, baina hasiera hartan ez zen erregimenekoa.
>
> Dena zegoen aldatuta, harrokeria handia sumatu zuen jendearengan, ez dakit, ez zen hark espero zuen bezalakoa. Bueltatu diren erbesteratuen esanak irakurtzen badituzu, ikusiko duzu ia guztiei gertatu zitzaiela gauza bera. Ez zen garai batean zena […] Nabarmen igarri zuen nire amak, baina ez zen kexatzera ausartzen. Alabetako bi ekarri gintuen berarekin, eta damu izango zen, akaso. Itzuli eta nobelak idazteko ilusioa zuen, hura zen haren egiazko bokazioa. Hiriburu batera joan beharrean, bere herrian geratu zen, eta hori izan zen, nire ustez, haren akatsa" *(Ana Mary)*.
>
> "Pello Irujok, nire senarrak eta nik pentsatu genuen euskaldunak ala venezuelarrak ote ginen erabakitzeko garaia iristen ari zitzaigula. Eta ez da gauza erraza. Gure seme-alabek euskaraz hitz egitea nahi genuen eta Xabier, zaharrena, ikastola batera joatea. Gutxienez 6 urte izan behar zituen ikastola batean sartzeko. Horregatik etorri ginen 72an.[…]
>
> Eta horrela iritsi ginen hiru haur txikirekin, Venezuelan leku zoragarri bat, el Junco, atzean utzita, euskaldunak ote ginen ala Venezuelara itzuli behar ote genuen probatzera. Gure naziotasun-proba zen. Hemen geratu ginen. Noiz edo noiz, hezur-muinetaraino euskaldun sentitzen banaiz ere, Amerika izaten dut gogoan; etengabekoak ditut joan-etorriak." *(Arantzazu)*

Orain arte adierazitakoaren harian, **ondorengo batzuek nabarmentzen dute erbesteratzearen derrigortasunak eragin handia izan duela beraien genero-nortasunean**, ez baitzuten erabakimenik izan erbesteratze-erabakian, adingabekoak zirelako edo, horietako batzuk, erbestean jaio zirelako. Alde horretatik, nolabaiteko **nahasmendua, antsietatea eta etsipena adierazten dute beren buruaz hitz egiten dutenean: Nor dira? Nongoak dira?** Igorrek dioen moduan, egoeraren biktima direla sentitzen dute. Arantzazuren lekukotza da horren adibide garbia.

> "Anekdotikoa da nirea. Ezarrita etorri zitzaizkidan gauzak. Ezinbestean joan behar izan nuen 3 urterekin, ez nuen neuk erabaki. Nire gurasoak ere, haurrak zirela joan zirenean, ez zuten erabaki, haien gurasoek erabaki zuten, herriak une horretan bizi zuen egoerak hartaratuta. […] Ezarrita datozkizu gauzak bizitzan; biktima bat izan nintzen, ez nuen aukeratu […] Nire aita miresten dut, kontsekuentea izan baita bere pentsamoldearekin. Berak eta milioika espainiarrek zekiten zer arrisku bizi zuten beren ideiak defendatzean.

Hori heroikoa dela uste dut. Baina horren ondorioen arrastan joan ginen nire ahizpa, nire ama eta hirurok. Bereizi egin behar da hori. […] Bizitza normalagoa nahiko nukeen, ezin dut harro egon bizi izan dudanarekin." *(Igor)*

"Han jaiotako seme edo alaba ginenon bizitza beti zegoen ezbaian. Baina bagenekien hau: etxean euskaldun ginela, baina etxetik kanpora, zer ginen? Uruguaiarrak? Venezuelarrak? Eta ni, argentinarra? Ba bai, baginen hori ere. Hortaz, ezbaian bizi ginen, bi gauza baikinen, aldi berean. Gauza bat eta bestea izan nahi genuen.

[…] Horretara behartzen zaitu erbesteak. Ez da zure erbestea, zure gurasoena da. Ezin duzu herri berri horretan errotu, zure gurasoak ofendituko baititizu finean… Bada arazo horri konponbidea eman dion jenderik. Nik ezin izan nuen konponbiderik topatu, leku batetik bestera ibili bainintzen." *(Arantzazu)*

2.4. ONDORIOAK BIZITZAREN GAINEKO IKUSKERA FILOSOFIKO-EXISTENTZIALEAN

Elkarrizketatuak izan diren pertsona batzuek, errefuxiatuak nahiz erbesteratuak, nabarmendu dute betebehar hau sentitzen dutela bizi izan dutenaren ondorioz: **inoiz ere ez ahaztea zergatik irten behar izan zuten beren herritik eta ez ahaztea oraindik gertatzen ari diren bidegabekeriak**. Honela azaldu dute ideia hori Amparok, Rosariok, Igorrek eta Hadyk.

"Sentimendu askotarikoak izan nituen bidaian. Lehenik eta behin, oso eskertuta nengoen kanpotik nire bizitzaren alde lan egin zuten elkarte eta erakunde guztiekin. Bigarrenik, nire herriarekin bizi-konpromiso bat sentitzen nuen, handik irteten ari nitzelako eta han uzten nuelako nire bizitza erdia. Gainera, han geratu ziren nire lagun asko, irteteko eskubide handiagoa zutenak." *(Amparo)*

"Bada, isilik egotea eskaintzen baldin badidate, nahiago dut hemen egon eta hitz egin." *(Rosario)*

"Gerrako haurrak heroiak direla entzuten dut zenbaitetan, baina nik uste dut nire gurasoak biktima izan zirela haurtzaroan joan zirenean: ez zuten aukeratu gurasorik eta anai-arrebarik gabe geratzea, erbesteratzea; ez da esaldi peioratiboa, gertatu zena baino ez dut esan. Ni ere ez naiz heroia 12 urtez Polonian bizi izan naizelako. Nire aita bai, hura heroia izan zen, lan politikoa egitea erabaki baitzuen eta horregatik joan behar izan baitzuen erbestera. […] Nire aita eta milaka espainiar heroi izan ziren, klandestinitatea hautatu eta ondorioak pairatu zituztelako […]" *(Igor)*

"Norberak ez du inoiz ere ahaztu behar zergatik irten den bere herritik. Hori da bizirik jarraitzeko arrazoia. Beraz, hori gogoan duzun bitartean, beti arituko zara borrokan zure herrian utzi dituzun pertsonen alde." *(Hady)*

Kopuruz aurrekoak baino gutxiago izan arren, pentsamolde horretatik urrundu dira beste pertsona batzuk, eta esan dute **nolabaiteko desilusioa sentitzen dutela garai bateko borrokekin**. Horren arrazoi batzuk dira ezkortasuna gailendu zaiela batzuei, urte asko igaro ondoren, ez dutela aldaketa nabarmenik ikusi (pertsona erbesteratu batzuek esan dute hori), eta beren bizitzako beste alderdi batzuk lehenetsi dituztela. Hau adierazi du Maitenak:

"Atzean utzi dut, neurri handi batean. Ez dut uste helburu horrekin bizitzea hain inportantea denik; orain ez nintzateke horretarako biziko, bizitzan gauza inportanteagoak daude. […]Urteak ditut orain, eta jakin dut zer nahi duen gizakiak:

oinarrizkorik ez faltatzea, familia bat izatea, jarraitasun bat izatea eta zure familiak gabeziarik ez izatea.

[…] Borrokatzeko grina izaten du norberak gaztetan, gauzak egitekoa. Baina, orain, zerk du garrantzia niretzat? bada, nire biloba txikiak zoriontsu izatea, haiek aurrera egitea eta nire semeari babesa ematea. […] Horrek, luzera, garrantzi handiagoa du norberarentzat." *(Maitena)*

2.5. ONDORIO SOZIALAK

Errefuxiatuek eta erbesteratuek bizi dituzten **ondorio sozialei**, eta, bereziki, hartzen dituen gizartean bizi duten onarpenari edo arbuioari, **begiratuta, aldeak daude pertsona errefuxiatuen eta erbesteratuen egoeren artean, eta, zenbaitetan, egoera kontrajarriak direla esan daiteke.**

Garai batean erbesteratutako pertsona gehien-gehienek adierazten dute **harrera sozial ona izan zutela** erbesteko herrira iristean, herri horrek loturak edo hitzarmenak zituelako **euskal abertzaletasunarekin, komunismoarekin, anarkismoarekin eta errepublikazaletasunarekin**. edo erbestean zeuden sareen babesa eskuratu zutelako. Hori adierazten dute, esaterako, Igorren, Josuren eta Keparen kontakizunek eta Ainararen aitona-amonen eta Arantzazuren gurasoen bizipenek.

"Bai, iritsi eta berehala topatu zuten lana. Etxea ere erraz aurkitu zuten. Eta horregatik geratu ziren. Baina harrera ona izan zutela pentsatzen dut; bizitza osoan izan ziren han eta han osatu zuten familia." *(Ainara)*

"Ez nintzen inoiz ere arrotza sentitu, gezurra litzateke besterik esatea. Erabat integratuta nengoen. […] Oso fabrika handi batean lan egiten zuen aitak, oso ondo integratu zen. Hizkuntza ez zen arazo izan auzotarrekin. Oso espainiar gutxi ginen Polonian, 200 inguru." *(Igor)*

"Eusko Jaurlaritzak antolatzen zituen bidaiak, […] Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat baitzuen Venezuelako gobernuarekin, jendea hara eramateko. Profesionalak nahi zituzten, lanbide bat zutenak, hau da, lan egiteko moduan zeudenak. […] Ez da gaur egungo jende gaixo horri gertatzen zaiona." *(Josu eta Kepa)*

"(Harrera Buenos Airesen) oso ona. Abokatua genuen aita, eta astebetera kontulari-lana lortu zuen alpargata-fabrika batean. Oso fabrika ospetsua zen Argentinan; euskaldunena zen. Orduan euskaldunei ematen zizkieten kontulari-lanpostuak. […] Jendea mugiarazi zuten, abalak eman zizkieten itsasontzietan joandakoei, logelak eskuratzen zizkieten lehen hiletarako… Egiaz, prestasun paregabea erakutsi zuten euskaldunek. […] Harrerako sare handi bat zegoen, ez zen euskaldun bat bera ere ikusi kalean goserik. Ameriketako euskal etxeak eta, batik bat, Laurak Bat, bikain eta eskuzabal aritu ziren euskal abertzaleen aldeko elkartasunean." *(Arantzazu)*

Asiloko herrira iristean babes-sare horiek izaten zituztenez, herrialde horretara iristeko unearen bizipen ona dute gogoan, baina, **elkarrizketatu diren pertsona batzuek hausnartzen dute erbesteratuen komunitate horiek itxiak izateko joera zutela**. Horren ondorioz, **harreman gutxi izan zuten herrialde horietako jendearekin, eta, horrenbestez, oso txikia izan zen harrerako herrialdeetan izan zuten gizarteratze-maila**. Oso argigarriak dira, alde horretatik, Maitenaren edo Josu eta Keparen istorioak:

"(Nire amak) ez zuen lagun mexikarrik izan, pentsa. Geto batean bizi izan nintzen. Ez dakit hori ona edo txarra izan zen, baina gertakari horien ondorengo gara gu. Horregatik gu, beti, astebururo, euskal etxera joaten ginen, bi etxebizitzako etxe batera Mexikoren erdi-erdian, dantza-eskolak hartzera eta euskara ikastera. Irrealitatea bizi genuen. Ez

ginen espainiarrak, ez ginen mexikarrak, euskaldunak ginen. Eta haiek esaten ziguten: 'Ui, euskaldunak!'... [...]

Ez zen geto fisikoa, baina bai kulturala eta psikologikoa. Ez dakit onik egin ote zidan, baina hori bizi izan nuen." *(Maitena)*

"Guk bai, harremanak izaten genituen venezuelarrekin ikasten aritu ginen garaian. Eta gerora ere bai, lanean hasi ginenean, tratu handia genuen haiekin. Hala ere, larunbata eta igandea iristen ziren, eta beste aldekoekin egoten ginen [...].Ez zuten gure bizimodu bera egiten, zertxobait desberdina zen haiena, guk bertako ohiturekin bizi baikinen, (euskaldunen) koadrilan. Eta han ez dute ohitura hori." *(Josu eta Kepa).*

Gizartearen onarpenari edo arbuioari begiratuta, pertsona errefuxiatuen, Ibizipenak ez dira pertsona erbesteratuen berdinak. Esaten dute, oro har **errefuxiatu-denboraren ezaugarri izan dituztela zailtasunak, arbuioa, diskriminazioa eta gizarte-aurreiritziak** eta horien artean izan direla estereotipo negatiboak eta xenofobiako, arrazismoko eta klasismoko adierazpenak. Egoera horren erakusgarri ona da Aminak partekatzen duen bizipen hau:

"Baztertu egin naute, gizarte-bazterketa izan dut, maila ertaineko lekua baitzen. Hasiera batean, ez zekiten nongoa nintzen, ez zekiten ijitoa edo zer nintzen, ez ninduten han bizitzen ikusten. Eta horrek norberaren sentikortasuna urratzen du. [...] Butanorik gabe geratu ginen Bilbora errentan etorri ginen lehen astean. Janaria prestatu behar nuen, larunbatean. Gasez zebilen sukaldea genuen. Ondoko etxera joan nintzen ura, olioa eta gatzarekin eltze txiki batean eta arroz eskukada batekin, sutan prestatzeko. Ondoko etxean kozinatzea zen asmoa, kanpamentuetan horrela egiten genuen: gasik gabe geratzean, izebarengana, ondokoarengana edo beste norbaitengana joaten ginen. Eta kozinatzen uzten zizuten edo, bestela, beren janaria ematen. Kuban ere horrela egiten dute, atea jotzea nahikoa duzu zerbait jasotzeko.

Ondokoaren atea jo nuen eta esan nion butanorik gabe geratu ginela eta arroz zuria kozinatu nahiko nukeela. Eta, irribarrez, sukalde elektrikoa zuela erantzun zidan eta argindar asko kontsumitzen zuela. Ezin nuela han kozinatu. [...] Norberak onartu behar du daukanarekin moldatu behar duela hemen. Bakarrik egotearen sentipena handitzen du horrek. [...]" *(Amina)*

Hala ere, **bada salbuespenik. Pertsona erbesteratu batzuek**, eta beren ondorengoek bizi izan zuten noizbait **arbuioa eta bazterketa**.

"Beno, pixka bat zaila izan zen hasieran. Beti egoten da norbait apur bat xenofoboa eta beti egin dut lana jendaurrean; gainera, ezin dut ahots-doinu hau ezkutatu, nahita ere." *(Ainara)*

"1937an erbesteratu ginen, baina euskal lurretan ginen oraindik, Donibane Garazin, eta nire aitak, Eusko Jaurlaritzak izendatutako haurren udaleku-zuzendaria garai hartan, ikusi zuen ez ziela inork ere harrerarik egin, ez berari, ez trenetik jaisten ari ziren haurrei, eta dena ilun zegoela. [...] Hurrengo egunean, nire aita, gizon gogotsua izanik, bila hasi zen arazoa nork konponduko, eta erretorea ikustera joan zen. [...] erretoreak bere bulegora eraman zuen eta esan zion gorriak zirela eta horretatik zirela madarikatuak, zigor oro merezi zutela [...]." *(Arantzazu)*

Pertsona batzuek irizten dute bizi izan duten arbuioa eta bazterketa **txoke edo talka kulturalaren** ondorio dela. Horren harian, pertsona batzuek adierazten dute normala dela zenbaitek jarrera desegokiak izatea edo begirada mesfidatiak egitea, ezezagunari zaion beldurraren ondorio baitira.

"Beste kultura bat genuen. Nire senarrak, egun batean, lekua utzi zion emakume bati metroan, eta haserretu egin zen, zaharra iruditzen ote zitzaion esan baitzion. Erantzun zakarrak dira, mesede bat egin nahi duzunean, besteari errespetua diozula adierazteko. Hori da txoke handiena. [...] Zenbaitetan, jendeak beldurra dio ezezagun duenari, baina ni ezagutzen joan diren neurrian, pixkanaka-pixkanaka konturatu dira, esaterako, doktoretza egiten ari naizela..." *(Amina)*

Pertsona errefuxiatuek adierazten dute, era berean, **isolamendua eta bakardadea** sentitzen dutela zenbaitetan.

"Kezka hori bera izan nuen: ez nuela seniderik gertu, ezta lagunik ere. Txikitan bereizi ninduten ezagutzen nuen gizarte-sistematik. Hortaz, egunerokoan zer egina banuen arren, nire egoera okerrera egiten ari zen. Bidera irten bainintzen etxetik, abentura korritzeko." *(Samuel)*

"Eta, autobusean, unibertsitatera joatean, isilik joaten ziren denak. Eskolak amaitu eta txirrina jotzean, korrika joaten da mundu guztia; atzera-aurrera, gelditu gabe. Eta, azkenik, Bilbora iritsi nintzen eta bakarrik sentitu nintzen. Lanak izan nituen jendearekin konektatzeko." *(Amina)*

"Oso bakarrik sentitu naiz nire antzeko egoeran dagoen norbaitek soilik ulertzen nauela sentitzen hasi naizenetan. Uste dut hor getoak sortzen hasten direla, guk nahi izan gabe osatzen dira, nekosoa baitzaizu jendeari erakustea sufrimendu-karga itzela dagoela gertatzen zaizun horren atzean. [...] Oso bakarrik sentitzen naiz batzuetan, ale bitxi baten moduan begiratzen bainaute oraindik jendearekin egoten naizen leku batzuetan." *(Rosario)*



III. EGOEREI AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK
ZER ESTRATEGIAK DARABILTZATE PERTSONEK, HAINBAT MAILATAN, EGOEREI AURRE EGIN ETA EGOERA HORIEK MIN GUTXIAGOZ BIZITZEKO?

No!!
Water
No!!
Food

3.1. ESTRATEGIA PERTSONALAK / INDIBIDUALAK

Beren buruarekiko konfiantza lantzearena da pertsona errefuxiatuek eta erbesteratuek sarri erabiltzen duten estrategia indibidualetako bat, eta, konfiantza hori lantzeko, nahitaezkoa da oso **baikorra, ausarta, saiatua eta gogotsua** izatea. Horrelako egoera bat bizi ondoren, ezinbestean berregin behar dute beren bizitza, eta, zailtasunak zailtasun, baldintza eta erantzukizun berriei egin behar diete aurre. Horrela jokatuta, beren bizitza berria onartzeko urratsak ematen dituzte.

> "Ez naiz damutu inoiz ere; etorkizunik ez nuelako irten nintzen nire herritik. Malin ez nuen inolako etorkizunik, baina hemen borrokan jarrai dezaket, eta hemen izanda, gainera, lan egiteko balia ditzakedan gauza asko ikasi ditut." *(Hady)*

> "Indarra agian, indartsu izan behar nuen. Beste pertsona batzuen aldean, zorioneko sentitzen nintzen. Neure buruari esaten nion, 'pasako da, beti ezin du izan horrela'. Datorrenaren gaineko itxaropena." *(Amina)*

> "Nigeriara iritsi nintzenean, pentsatu nuen noizbait utzi behar niola gorrotatzeari. Orduan berreskuratu nituen indarrak. Gauzak zure esku ez daudenean, ez duzu bestelako aukerarik, eta konfiantzaz egin behar duzu aurrera, eutsi egin behar diozu goiari, eta nik eutsi egin nion. Lehenik, nire indarrak baliatu nituen, eta, ondoren, nire egoeraren aitortza etorri zen (Kamerungo errefuxiatu ingeles hiztuna izatea aitortu zioten)." *(Samuel)*

> "Bizimodua atera nahian nabil, itxaropenez betea. Gauzak, batzuetan, ez dira ondo ateratzen, bertan behera geratzen dira aukerak. Baina, tira, bizitza beti da berdin. Borrokan jarraitzen dut. Ezin dut, aukerarik ez dagoelako, loa galdu edo gainerako pertsonen alde borrokatzeari utzi." *(Gustave)*

> "Egoerari egokitzen jakin dugu. Tira, kontua da beste pertsona batzuek esan zutela: 'Ez, hau kaka bat da', eta kritikatu egiten zuten. Guk ez; leku guztietara egokitu gara, ez baitugu beste erremediorik izan." *(Josu eta Kepa)*

> "Urte luzez errepikatu nion neure buruari: 'ez nuen akaba nintzaten utzi, ez ninduten garbitu Kolonbian.' Bizitzeko eskubidea dut, eta eskubide horrek nire baitan loratu behar du orain. Niretzat eta gainerakoentzat; bizi-proiektuarekin jarraitzeko, nire herriaren bizi-proiektuarekin. […] Horrek eusten ninduen." *(Amparo)*

Era berean, errefuxiatu-bizitzari aurre egiteko, pertsona batzuentzat inportantea izan da, **erlijio-federen edo espiritualtasun-moduren bat izatea**. Noizbait itzultzeko itxaropenari eusten laguntzen diete baliabide horiek, baita indartsuak izaten eta oraina baikortasunez bizitzen ere..

> "Gauero errezatzen genuen errosarioa Montevideon. Errosarioa zeraman nire amak. Etxeko euskal kulturaren parte zen. Funtsezkoa zen erlijioa. […] eta igandetako meza." *(Arantzazu)*

> "Errezatu egin behar duzu, Jainkoak lagunduko baikaitu… Parrokoek ere laguntza handia eman didate." *(Augustine)*

> "Jarduera espiritualak egiten ditut. Ez naiz erlijio baten sinestuna, baina meditazioa egiten dut, yoga egiten dut, eta gorputzarekin eta espiritualtasunarekin egiten dudan lan horrek ikaragarri laguntzen nau." *(Rosario)*

Objektu jakin batzuk erabiltzea, erritual konkretuak egitea eta norberaren ohiturei eustea dira errefuxiatuek egunero erabiltzen dituzten beste estrategia batzuk, beren familiak eta/edo sorlekua gogoratu eta haiengandik gertuago sentitzeko. Horrela azaltzen dute Igorrek eta Arantzazuk:

> "La Pirenaica irratia zen Espainiarekin genuen loturetako bat. Irratia jartzen genuen arrats-gauean, eta haren ondoan entzuten genuen, eserita. Espainia gogora ekartzen zigun edozer jartzen genuen etxean; zezenketen kartel bat zen horietako bat". *(Igor)*

> "Liburuz betetako gela bat zuen nire aitak, bere liburutegia berregiten zuen erbestean, ahal zuen moduan… Algortan zuen liburutegiaz hitz egiten zuen, baina erre egin zuten hura. Bere aitonarena zen eta hark bere liburutegia zenaz hitz egiten zuen eta, aldi berean, beste liburutegi bat osatzeko lanari ekin zion erbestean. Sisiforen lana zen." *(Arantzazu)*

Ohiturei eta nortasun kulturalari eusteko tenorean, **erbesteratutako pertsona askok aitortzen dute erbesteko euskal etxeek lan handia egiten dutela**. Topaguneak, bilguneak eta ospakizunetarako lekuak dira, eta berebiziko garrantzia izan dute euskal nortasunari eusteko. Erbesteko komunitateak sortzen eta deserrotzeak eragozten lagundu dute.

> "Euskal etxera joaten ginen, beti euskal etxera. Gu euskal etxera joan ezean, euskal etxerik ez zela izango zirudien, suari eutsi behar genion nola edo hala. Euskal dantzak, antzerkiak eta abestiak lantzen genituen." *(Maitena)*

> "Gu, esaterako, Caracasen geunden eta euskal etxea zegoen han. Han egiten genuen bizitza. Etxetik irten eta hara joaten ginen. […] Azken gertakarien berri izaten genuen euskal etxean. Sentimendu handiz bizi genituen hemengo dantzak eta festak. Izenei erreparatzen genien, eta, bereziki, izen euskaldunei." *(Josu eta Kepa)*

Pertsona **aktibisten** egoera zehatzean, pertsona horiek badakite, beren sorlekutik urrun izan arren, **eskubideen subjektu** direla, eta hori lagungarri zaie indarrak bildu eta deserrotzeari aurre egiteko. **Hartu dituen herrialdean aktibismorako espazioak sortzea** izan da erbestearen egoerari aurre egiteko beste estrategia bat. Aktibismo horren helburua izaten da beraien borrokak legitimatzea tokian tokiko gizartearen aurrean eta/edo ihesera bultzatu zituzten arrazoi askotarikoak salatzea (giza eskubideen urraketa, genero-indarkeria, erlijio-jazarpena, jazarpen politikoa eta bestelakoak). Tokian tokiko elkartasun-taldeen laguntza funtsezkoa izan da legitimazio hori lortzeko.

> "(Lagungarri izan zait) emakume izatea, ezer egiterik ez nuela entzun behar izateak. Borrokatu egin behar izan dut, arrazoirik ez dutela erakusteko. […] Borroka dut odolean borborka. Beti pentsatu izan dut nire gurasoek borrokatu zutelako ditudala gaur egun ateak irekita. Baina ez ziren behar bezala borrokatu, erlijioak eta gobernuak engaina zitzatzen utzi baitzuten. Eta horri guztiari aurre egin behar diot nik, nire semeari ateak zabaltzeko. Ezin diot borrokatzeari utzi, nire semeak arazo berberak izango baititu borrokatzeari uzten badiot, eta hark ate ireki gehiago izan behar ditu irekita." *(Leila)*

> "Ez diot borrokatzeari utzi, Kongoren eskubideak defendatzen jarraitzen dut. Nire Facebook kontuan sartzen bazara, ikusiko duzu kongotarren manifestazio ugari antolatu ditudala hemen. Eta ez hemen bakarrik, baita Iruñan ere. Hemendik Iruñara joatea, paperik gabe, pentsa zer-nolako arriskua. Zure eremua ez den eremua. Baina Iruñako kongotarrak antolatu ditut, Madrilgo kongotarrak. Gaur ere horretan ari naiz, Kongoko herriaren eskubideen alde." *(Gustave)*

> "Eskubideen subjektu naizela ohartzeak asko lagundu nau nire herrian nintzenetik. Horren ondorioz, berdintasunean hitz egiten dut espazio publikoetan, bulegoren

batean zerbait erreklamatu behar dudanean. […] Esparru publikoan komunikatzeko bidea errazten dizu kontzientzia izateak eta eskarmentu praktikoa pilatzeak, lagungarri zaizu zure ongizateaz arduratu behar dutenekin hitz egiteko. […] Jakintza intelektual hori izatea, nolabait esateko, eta, horrekin parekatuta, bizi-eskarmentua pilatuta izatea, oso lagungarria da zure eskubideak erreklamatu behar dituzunean, ezta? Beste leku batetik abiatzen zara, zeure buruari balioa ematen diozulako." *(Rosario)*

"Borrokatzeko espazioak sortu nituen han, Suedian. Berebiziko garrantzia dute espazio horiek etorri garen lekutik etorri garenontzat; erosotasunez bizitzeko aukera emango diguten politikak izatea, mugitzeko aukera emango digutenak. Hau da, bizitza legitimatzea. Egoera negargarrian etorri nintzen (Kolonbiatik), baina nire eskubideak eskuratu ondoren, gizarteratu egin nintzen eta zertxobait oneratu nintzen, beste bizi-dinamika bati ekinda. Ez erabat, baina onera egin nuen, duintasunari eutsita." *(Amparo)*

"(Nire ama) politikan sartu zen. Espainiarrei ez zieten politikan sartzen uzten, are gutxiago mexikar naziotasuna eskuratu gabe. […] Arrantxoetako esnea zuzenean ez saltzearen aldeko kanpaina egiten aritu zen Hermosillon, Sonoran, esnea aurretik pasteurizatu zedin. […] Lan egiten zuen egunkariko zutabetik egiten zuen kanpaina. Ez dakizu zenbat borrokatu behar izan zuen horrekin! Baina lortu zuen. Aurkariek gachupina[10] eta horrelako itsuskeriak esaten zizkioten. Beti izan da oso borrokalaria eta konprometitua; aurpegia eman du eman behar izan duenean. Bere erara borrokatzen zen nire aita, ekologista gutxietakoa zen, lehenetakoa, beharbada..." *(Ana Mary).*

Egoerari aurre egiteko beste modu bat da **norberaren gaitasunak eta trebetasunak lantzea, norbera baliagarri sentitzeko eta diru-sarrerak lortzen saiatzeko**. Nabarmentzekoa da Ana Maryk horren gainean egiten duen gogoeta, erbesteratutako emakumeak beren familien euskarri ekonomikoak eta emozionalak izan zirela adierazi baitu.

"Aurreko batean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egin zen biltzar batean, familiak hasieran nola biziraun zuten galdetu zuten. Esan nuen: emakumeengatik, noski! Oihalak lantzen zituzten, haurren jantzitxoak egiten zituzten, emakume askok berralokatuak zituzten, hau da, etxe bat alokatzen zuten eta gelak alokatzen zizkieten erbesteratuei. Askok egiten zuten hori. Emakumeek oinetako txikiak, txaketatxoak, jantzitxoak eta antzekoak egiten zituzten. Ez dakit etxeetan lan egiten ote zuten, agian bai, ez dakit, bateren batek egingo zuen lan etxeren batean, denak ez baitziren katedradunak. Erbestera joandako katedradunak bakarrik ditugu gogoan, baina askotariko jendea zegoen. Emakumeren batek egingo zuen lan etxeren batean, baina nik uste dut emakumeek atera zituztela familia asko aurrera. Emakumeak hasi ziren lanean, errazagoa zelako. […] Emakumeak hasi ziren etxeak aurrera eramaten. Horretan nago." *(Ana Mary)*

"Liburuak idaztea eta argitaratzea erabaki nuen orduan, baina ez dut argitaletxeentzat idazten. […] Nire herriko belaunaldi berrientzat atera nahi dut material hori; material idatzia da, baina ez handikeriaz egina... Ez naiz liburuen kontura bizi, egiten dudan lanaz bizi naiz. Hala ere, gai bat lantzen dut 4 edo 5 urtean behin. Poesiak eta narrazioak dira, idazle-lanetan egindakoak, [...] eta nire asmoa da noizbait nire herriko liburutegiren batean izatea, garai bateko belaunaldi baten lekuko, ez baitugu gertatutakoa galtzerik nahi, bizi izan dugun historiaren pasarteak baitira. Hortaz, narratibaren eta poesiaren bidez, gure herrian gertatzen denaren berri ematen dugu, eta erreferentzia moduan uzten dugu idatzirik. Alde horretatik, beti esaten dut ez naizela nire lanbidetik bizi izan, baina garapen profesional bat izan dudala sentitzen dut, ordain ekonomikorik jaso ez dudan arren." *(Amina)*

10 Gachupin edo gachupina esaten zitzaien, modu kolokialean, XVI. eta XVII. mendeetan Latinoamerikan bizi ziren espainiarrei. Hitz hori Mexikon eta Erdialdeko Amerikako herri batzuetan erabiltzen da batik bat.

Elkarrizketetan nabarmentzen da, era berean, **pertsona errefuxiatuek** garrantzi handia ematen diotela hartzen dituen herrialdeko hizkuntza ikasteari eta bertako kultura ezagutzeari. Hori horrela, **hartzen dituen herrian gizarteratzeko edo harremanak lantzeko ahalegin handiak egiten dituztela esaten dute.**

> "[…] asko lagundu nau herri hau, edo Katalunia, ezagutzeko gogoak. Gustuko dut herrietara joatea. Katalana ikastea lagungarri izan dut herrialde honetako herritar aktiboa izateko. […] Hizkuntzak horrelako garrantzi handia baldin badu katalanentzat, ez zait nekagarria hura ikastea, castellers batzuekin gozatzea, calçots batzuk jatea eta antzekoak egitea. Hemen bizi naiz, eta begirunez hartu nahi dut kulturaren alde hori. Horrek ateak irekitzen dizkizula sentitzen duzu. Jendeak estimu handiz begiratzen zaituela zuk errespetuz hartzen duzunean bizi zaren herria." *(Rosario)*

> "Tira, integratu beharra nuen, etorkin ororen moduan. Ikastaroak egin ditut eta egiten ditut, bertako jendearekin harremanetan." *(Gustave)*

> "Zure bizitzaren gaineko ardura hartu behar duzu, nahi ala ez. Hizkuntza ikasi behar duzu, ikastaroak egin, integratu." *(Augustine)*

Babesa ematen duen herrialdean gizarteratzeko ahaleginei begiratuta, pertsona errefuxiatu batzuek aitortzen dute **lagunak egin dituztela eta konpainian eta baliagarri sentitu direla gizarte-erakundeetako boluntario eta beren auzo eta komunitateetako pertsona aktiboak izanda**. Gainera, horrek besteri laguntzeko aukera eman diela esan dute. Gai kolektiboetan konprometitzea eta hainbat jarduera egiteko prestutasuna erakustea baliagarri izan zaie, era berean, gizarte-sareak eta –kapitala osatzeko eta deserrotzeak dakarkien mina arintzeko.

> "(Lanean ari naiz) Asociación para la Unión de los Africanos en el País Vasco izeneko elkartean. Talde horrekin konprometitu naiz, beti izan dudalako gogoan asmo bat. Zer asmo da hori? Internet bidezko irrati bat egitea, lineako irrati bat, pertsona afrikarrak protagonista izan daitezen eta beren bizitzaz hitz egin dezaten. Eta ez hori bakarrik… Gaur egun, kilometro gutxi batzuetara dagoen arren, kontinente ezezaguna da Afrika espainiarrentzat. Afrika hain ezezaguna denez, beste hau pentsatu dut: kazetaritza-ikasketak amaitzen dituzten gazteena jotzea, Afrikan espezializatu daitezen irrati horretan lan eginez. Pentsa ezazu zer egokia izan daitekeen hori egitea gaur egungo munduan, gazteek irakurtzea ez, baina entzutea atsegin duten garaian, idaztea ez, baina ikustea gustatzen zaien aroan... Telefonoetatik entzuteko moduko lineako irrati bat izatea." *(Gustave)*

> "Elkarteetako pertsonen babesa funtsezkoa da aurrera egiteko. […] Munduko Emakumeak elkartean sartu nintzen, eta handia izan zen hori niretzat, nire egoera berean zeuden emakumeak aurkitu nituelako: atzerritarrak, ikasketadunak eta lanean egonkortasunik topatu ezinean dabiltzanak. […] Geure gauzak kontatzen dizkiogu elkarri, topagune bat dela esan daiteke, eta horrek indarra ematen digu; bigarren familia moduko bat da niretzat. […]
>
> Handik lortu nituen nire lehen lan onak. Hitzaldi bat, tailer bat eta antzekoak proposatuta. Neure buruari esaten nion, 'bai ondo, lehen ez nintzen ausartzen, baina orain nire beste alderdi batzuk lantzen ari naiz.' Gauzak egiteko bultzada ematen dizute." *(Amina)*

3.2. FAMILIAREN BABESA

Pertsona askok esaten du familiaren babesa sentitzen duela urrunetik. Egunez egun sortzen diren zailtasunei aurre egiteko, funtsezkoak dira, alde batetik, familiak eman ditzakeen aholkuak eta babes emozionala, eta, bestetik, goiari eutsi behar diogunaren ideia, maite ditugunei hutsik ez egiteko. Neurri hori bera, seme-alaben ongizatea eta/edo maite diren pertsonak berriro ikusteko itxaropena (batik bat, pertsona erbesteratuen esanetan) dira aurrera egiteko motibazio edo arrazoi nagusiak.

> "Nire sentipena da ni urrun nagoelako dagoela nire familia herrialde berean bizi ginenean baino askoz ere batuagoa. Hori da, behintzat, arrazoi nagusietako bat. Nire familiak barne-hazkuntza handia izan du, eta garrantzi handia ematen dio orain elkar zaintzeari eta batak besteari begiratzeari. Laguntza handia ematen diogu elkarri. Irabazi handia da hori ere." *(Rosario)*

> "[…] Bere hemengo familia oso inportantea izan da harentzat. Nire amak ezin izan zuen jasan, eta itzuli egin zen. Gero eta gogorragoa zen urrun egotea. Gurasoak edozein unetan hil zitezkeela uste zuen. Eta obsesio moduko bat sortu zitzaion, bere lurra ederrena zela pentsatuta." *(Ana Mary)*

> "Pentsa ezazu zer den 50 urte bizitzea zure herritik kanpo eta, denbora hori guztia igaro ondoren, aurpegia ikusi eta bere izena esatea… Zur eta lur geratu nintzen. Uste dut hemen egoteko gogo itzela zuelako eta den-denaz gogoratzen zelako izan zela. Gogoan du Alzheimerra aurreratuago zuenean gero eta gutxiago hitz egiten zuela gaztelaniaz, eta gero eta gehiago euskaraz, eta gaztelaniaz erantzuten bazenion, hau erantzuten zuen: "maketo, que eres un maketo". Pentsa zer burugogorra zen euskararekin. […] Venezuelarra izan arren eta han bizi arren, euskaraz soilik hitz egiten zuen." *(Ainara).*

Erbesteratuentzat, senideen laguntza funtsezkoa izan zen beren bizitza berregiteko Espainiara edo Euskadira bueltatu zirenean; batik bat, dena galdu ondoren edo erregimen frankistak dena konfiskatu ondoren erbesteratu baldin baziren.

> "Eta pasa ginen azkenik (Euskadira bueltan). Pasa ginen Pampa osabak amari esan ziolako, gutun bat idatzi eta esan ziolako: 'pasa, nire seme-alabek jaten dutena jango baitute zureek.' Eta hona pasa ginen. […] Guztia genuen konfiskatua, etxea eta kontuak, bi kontu. […] Hemen izan ginen orduan, osabaren eta izebaren etxean, mojen ondoan, eta, tira, etxea lortzerik izan genuen arte, etxebizitza eman zigutenean." *(Josu eta Kepa)*

3.3. LAGUNTZA-SAREAK

a) Sare antolatuak – gizarte-erakundeen laguntza

CEAR-Euskadik laguntza handia eman diela adierazi dute elkarrizketatu ditugun pertsona errefuxiatuek. Askotariko arrazoiak eman dituzte: antzeko bizipenak izan dituzten pertsonak ezagutzeko eta haiekin egoteko aukera eman die (nahiz eta beste herrialde eta kultura batzuetakoak diren zenbaitetan), informazioa eman die, curriculumak egiten lagundu die, lana bilatzeko lekuen eta moduen gaineko argibideak eman dizkie, harremanetan jarri ditu beste erakunde batzuekin, laguntza psikologikoa eta juridikoa eman die, etab.

> "Hiru urte eta hiru hilabete izan nintzen Melillan, asilo-eskatzaile. CEAReko jendea ezagutu nuen orduan, eta asko lagundu zidaten. CEAReko langileek esan zidaten prozedurak hiru-sei hilabeteko iraupena duela gehienez." *(Samuel)*

Adierazpen horien artean, nabarmendu behar da pertsona askok ulertu dutela, CEARen bidez, zer-nolako garrantzia duen hartzen zaituen gizartean txertatzea. Nahiko ondo adierazten du hori Gustavek:

> "CEARen beti esan didate integratu egin behar dugula, ezin dugula beti lotan egon etxean, hizkuntza ikasi behar dugula. Boluntario oso atseginak zituen CEARek." *(Gustave)*

Erbesteratutako pertsonek eta haien ondorengoek esaten dute **babes funtsezkoak izan zirela haientzat erbesteko komunitateak, alderdi komunistaren tokian tokiko egoitzak, euskal etxeak eta/edo egoitza edo ateneo errepublikanoak**.

> "Espainolen klub bat zegoen han, horrela esaten genion, ez dakit zer izen ofizial zuen, etxabe batean. PCEren[11] egoitza zen, Varsovian. Komite zentraleko norbait etortzen zen noizean behin, Moskutik, eta bilerak egiten zituzten han. Elkarrekin egoteko eta hitz egiteko lekua zen. 'Espainiako taberna baten modukoa da hau' esaten zidaten. Barra bat zegoen sarreran eta beti izaten zuten ardo beltza; ez zen Espainiakoa, bulgariarra, aljeriarra edo Greziakoa izaten zen. Liburutegi itzel bat zuten gela batean, obra politikoak biltzen zituena, batik bat. Han biltzen ziren. Han ospatu genuen martxoaren 8a, eta, Gabonetan, urte berria ospatzen genuen, ez Gabon eguna, inor gutxi zelako sinestuna. Horrelako ospakizunak egiten ziren. Topaleku bat zen, maiz biltzen ginen han. [...]" *(Igor)*

> "PSOE alderdiko JARE batzordeak (Junta de Auxilio a los Refugiados Españoles) eta SERE zerbitzuak (Servicio de Evacuación de Refugiados Españoles) laguntza eman zieten erbesteratuei, iritsi berritan bizirauteko paga bat. Noiz arte eman zitzaien? Ez dakit, nonbaiten lanean hasi edo haren premiarik ez zuten arte." *(Ana Mary)*

> "(Mexikon) euskaldunen ondorengoek jarria zuten jendea hartzeko ostatu bat, harik eta lana topatzen zitzaien arte. Oro har, jendeak eginahal guztiak egiten zituen haiei lana topatzeko, edozertarako. Eta, horrez gain, dirua ematen zieten erakunde errepublikarrek eta Eusko Jaurlaritzak." *(Maitena)*

Berariaz, **aktibista askoren esanetan, babes handiko laguntzaile izan dituzte Espainiako eta Euskadiko elkartasun-erakundeak**, giza eskubideen aldekoak, herri kurduaren edo saharararraren aldekoak eta bestelakoak. Lortu nahi dutenaren alde egiten jarraitzeko arrazoiak ematen dizkie babes horrek, eta baita erbesteratzeari alderdi positiboak ikusteko motiboak ere. Horrela adierazi dute Rosariok eta Aminak.

> "Babes handia izan da niretzat Kataluniara beka batekin etortzea eta Kolonbiarekin eta nire borrokarekin konpromiso handia duen bizi-eremu hau topatzea. Ingurune adeitsua da, eta horrek zer pentsatua eman izan dit beti erbestearen, asiloaren edo babesaren gainean galdetu izan didatenean. Beti esaten dut nire bizipena ez dela gaizki pasa duten beste askoren modukoa, haiek bai bizi izan dituztela gabezia-egoera larriak." *(Rosario)*

> "Hori bera uste dut nik ere, ezin izango bainuen hemen jarraitu horrelako babesik izan ezean. "Elkarteetako pertsonen babesa funtsezkoa da aurrera egin ahal izateko. Bakarrik sentitzen zarenean, gauza handia da norbaitek zuri deitzea edo zuk besteri deitzea eta, zu entzuteaz gain, honelakoak esatea: ´izan adore´; hori, jada, asko da." *(Amina)*

11 Partido Comunista de España alderdiaren siglak

b) Laguntza-sareak – gertuko pertsonak

Errefuxiatu batzuek gertu izan dituzte bertako pertsonak nahiz pertsona migratzaileak, haiek hartzeko eta laguntzeko prest izan direnak, inolako ordainik espero gabe. Gustavek, esaterako, berari laguntza emateko eta konpainia egiteko prest zegoen bertako pertsona bat ezagutu zuen Bilbon egin zuen lehen egunean, eta horrek nabarmen aldatu du bere errefuxiatu-egoeraren bizipena. Orain, bere "aingerua" dela esaten du.

Antzeko bizipenak izan dituzte pertsona **errefuxiatu batzuek bertako pertsona kontzientziatuekin topo egin dutenean, beste herrialde batzuetan bizi diren bidegabekeria, abusu, zailtasun eta/edo gatazken gaineko kontzientzia dutenekin.** Bertako pertsona horiek herri askoren egoerekiko sentikor direla adierazten dute errefuxiatuek, eta deserrotzearen laztasuna ulertzeko jarrera ageri dutela. Honako hau adierazten du Aminak, saharara izateagatik jaso duen babesari buruz:

> "Karabanetara hitzaldiak ematera joaten ziren kooperanteen sareak lagundu ninduen. Noizbait Saharara joandako pertsonak dira; osasun-langileak, Sahararen lagunen elkarteetako kideak, etab. Jende asko zegoen, handia zen laguntza. Ingurune politikoko jendea, unibertsitatekoa […] Unibertsitatean ikasten nuenean ezagutu nuen jendeak baino laguntza handiagoa eman didate pertsona horiek." *(Amina)*

c) Pertsona migratzaileek beraiek osatutako laguntza-sareak

Migratzaileen sareetan edo erakundeetan parte hartzea aurrera jarraitzeko eta erbesteratzeari alderdi positiboa ikusteko pizgarri izan da elkarrizketatu askorentzat. Erakunde horietan parte hartzea onuragarri izan zaie alderdi praktikoetan eta pertsonaletan; esaterako, informazioa eskuratzeko edo agiri eta tramiteekin laguntza jasotzeko, eta, minak eta zailtasunak izan dituztenean, babestuak eta ondo hartuak sentitzeko. Horrez gainera, balio handiko prozesu kolektiboen partaide sentiarazten ditu, eta subjektu politiko direla ikusten dute. Erbesteratutako pertsonak eta pertsona errefuxiatuak bat datoz horrekin.

> "Kurduen elkarte baten partaide naiz Bilbon, NEWROZ izena du. Agiriekin lagundu didate, eta lanean ari dira, gure herriaren alde. Bilerak egiten ditugu, hainbat lanetan aritzen gara, Kurdistani buruzko hitzaldiak ematen ditugu, emakume kurduen gainekoak, eta horrek bizia ematen dit. […] Harreman ona dut haiekin. Haien etxeetara ere joaten naiz, eta tea, kafea edo beste edozer hartzera gonbidatzen naute…" *(Leila)*

> "Euskal dantzak, antzerkiak eta abestiak lantzen genituen. Euskal apaiz asko zeuden, errefuxiatuak ziren horietako batzuk; hau da, kolonia sendoa zen. Ez ziren asko, baina komunitate sendoa zen. […]" *(Maitena)*

> "Ez zuten inor ere ezagutzen. Gerora sortu zen elkartasuna. Hango euskal etxe baten sortzaile izan zen nire aitite. Talde txikien laguntza zuzena jaso zutela uste dut, eta ez, hainbeste, familiarena. […] Kontua da elkarrekin ibiltzen zirela; beti, gaur egun ere bai. Nire gurasoak Venezuelakoak dira, baina euskal etxean ezagutu zuten elkar, eta ezkondu egin ziren gerora. Nire familia osoa, finean, euskalduna da, baina euskal etxeetan elkartu zirelako." *(Ainara)*

d) Emakumeek osatutako sareak

Emakumeek elkarri ematen dioten laguntza eta konpainia handia nabarmentzen dute emakume errefuxiatu askok, eta adierazten dute funtsezkoa dela laguntza hori beren eskubideen alde egiteko eta beren buruak indartzeko. Hori azaldu du lehenago Aminak, Emakumeak Munduan elkarteko kide den aldetik, elkarte horretako lagunak ondoan izateak berari eta bere autoestimuari egin dion onurari buruz hausnartu duenean (3.1. Estrategia pertsonalak/indibidualak).

Mugimendu feministako lagunek zer **laguntza** ematen dieten aztertuta, Amparo eta Leila aktibistek esan dute pertsona horiek **deserrotzeak dakarren minari aurre egiteko baliabide funtsezkoak bilakatzen direla**.

> "Etengabe elikatu naute hemen. Hau da, beti babestu eta besarkatu naute hemen, zutitu eta duintasunez bizitzeko. Pertsona gisa hazten laguntzen didate, oreka dakarkidate, legitimatzen laguntzen didate. Ideia hau eraikitzen dut beraiekin: beste mundu bat posible dela. Bizitza eraikitzen dut, borroka eraikitzen dut." *(Amparo)*

> "Gizarte-mugimenduak dituen leku batean bizi nahi nuen, zerbait egiteko nire herriaren alde. Bizirik sentitu nahi nuen, niretzat oso inportantea delako erakundeetan egotea, emakumeen elkarteetan egotea. Hemen elkarte batean nago, NEWROZ, herri kurduaren alde lan egiten duena; emakumeen elkarteekin eta RONAK federazioarekin lan egiten dut. Emakume kurduen federazio europarra da azken hori." *(Leila)*

Leilak uste du, era berean, egoerari aurre egiteko estrategia sendoa dela **beste herri eta kultura batzuetako emakumeen borrokak ezagutzea eta haiekin bat egitea**. Erbestearen alderdi positibo bat dela uste du, eta nabarmentzen du horrek indartu egiten duela emakumea eta kurdua den aldetik egiten duen borrokaren zentzua.

> "Bidaiatzen ari nintzela eta gerora, gu baino egoera okerragoan izan, baina borrokan jarraitzen duten emakume asko ezagutu ditut, bizi egiten dira eta irribarre egiten dute, bizitzeko gogoz. Oraindik harremanetan nago haiekin, Internet bidez. Ona da hori, beste kultura eta ikuskera batzuk ezagutzen dituzulako, beste pentsamolde batzuetako jendea ezagutzen duzulako, bestelako pertsonak." *(Leila)*

3.4. INFORMATZEKO AUKERAK

Pertsona errefuxiatu gehienek adierazten dute ez dutela informaziorik izan iritsi izan diren unean. Esaten dute, era berean, CEAR-Euskadik eta beste elkarte batzuek eman dietela beren eskubideei eta eskura dituzten zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazio baliagarria. Beste batzuek adierazten dute udaletako gizarte-langileen bidez eskuratu izan dutela informazio hori. Hitz hauekin laburbiltzen du Samuelek:

> "Hemen Bilbon ez nekien errefuxiatuaren estatusa duen pertsonak hilean 300-400 €-ko laguntza jaso dezakeenik, eta horren berri izan nuenean, itxaropena piztu zitzaidan, norbaitek zu laguntzea erabaki duela sentitu nuen; funtzionatzen duen sistema bat dago hemen. Etxe batean nago orain, alokairuan, zertxobait dut hilean gastuei aurre egiteko, eta berreskuratzen ari naiz, oro har, kontzientzia mota hori, galdurik izan dudana." *(Samuel)*

Pertsona horietako askok diote ez zutela helmugako edo asiloko herrialdeari buruzko informaziorik izan, **baina elkarrizketatuak izan diren pertsona aktibistetako batzuek bazuten informazio pixka bat, gutxi bada ere, lagungarri izan zaiena botere publikoekin harreman zuzenagoa eta duinagoa izateko**. Horren gainean hausnartu du Rosariok:

> "Esparru publikoan komunikatzeko bidea errazten dizu kontzientzia izateak eta eskarmentu praktikoa pilatzeak, lagungarri zaizu zure ongizateaz arduratu behar dutenekin hitz egiteko. Beti sentitu izan dut arretarako instantziak oso zailak zaizkiola immigranteari, eta, nola ez, zailagoak oraindik errefuxiatuari. [...] Beti izango ditut gogoan hizkuntza ez dakiten pertsonak, egiaz jazarriak direlako etorri direnak eta oraindik jakintza eskuratzeko saio sendorik egin ez dutenak, ez dakite, ez dute legediaren edo beren eskubideen berririk, ez dakite zer den nazioarteko zuzenbide humanitarioa edo asiloak zer esan nahi duen. Jakintza intelektual hori izatea, nolabait esateko, eta, horrekin parekatuta, bizi-eskarmentua pilatuta izatea, oso lagungarria da zure eskubideak erreklamatu behar dituzunean." *(Rosario)*

Informazioa eskuratzeko aukerei begiratuta, Gerra Zibilaren eta frankismoaren ondorioz erbesteratutako pertsonen esperientziak ez dira pertsona errefuxiatuen parekoak. **Elkarrizketatuek esan dute informazio-iturri bikainak zirela sare errepublikarrak, euskal abertzaletasunaren sareak eta erbesteko komunitateak,** eta erbesteratutako pertsona hartzen zuen herrialdearen berezitasunen eta ezaugarrien gaineko informazio egokia ematen zutela.

3.5. ESKUBIDEAK ESKURATZEKO AUKERAK

Beren egoera administratiboa erregularizatzea lortu duten pertsona errefuxiatu guztiek esaten dute errefuxiatu-izaera hori lagungarri izan zaiela eskubide gehiago eskuratzeko, ahaldunduta sentitzeko eta hemen egiten duten bizitza berriari konfiantzaz begiratzeko. Horregatik da hori, hain justu, elkarrizketatuak izan diren pertsona errefuxiatu guztien erreparazio-eskaeretako bat. Egoera horrekiko sentikortasun handia dute Rosario, Amparo, Gustave eta beste aktibista batzuek, eta horren alde ari dira borrokan.

> "(Funtsezkoa) da gutxieneko ongizatea sentiaraziko duten politikak izatea, mugitzeko aukera izatea norberak; hau da, bizitza legitimatzea. Egoera negargarrian etorri nintzen, baina han (Suedia) nire eskubideak eskuratu ondoren, gizarteratu egin nintzen eta zertxobait oneratu nintzen, beste bizi-dinamika bati ekinda. Ez erabat, baina onera egin nuen, duintasunari eutsita." *(Amparo)*

Gai honetan, bestelakoak izan dira **frankismoaren ondorioz erbesteratutako pertsonen bizipena**, urte haietan **ez baitziren agiririk gabe edo legez kanpoko migrazio-egoeran izan.**

IV. ERREPARAZIO-ESKAERAK – ZERK LAGUNTZEN DIO PERTSONARI KOLPEEI AURRE EGITEN ETA BIZITZA BERREGITEN?

4.1. JENDEAK HARRERA ONA EGITEA

Elkarrizketatu diren pertsona errefuxiatu guztiek diote oso garrantzitsua dela, **gizarte hartzaileak jarrera ona izango eta harrera adeitsua egingo baldin badu, jatorriko herrialdeetan bizi duten egoera zailaren berri izatea gizarte horrek**. Hori egitea ezinbestekoa dela deritzote, estigma oso handiak izaten baitituzte maiz, atzerritarrak izate hutsagatik eta/edo hegoaldeko herrialderen batetik etorri izanagatik.

Elkarrizketatuak izan diren pertsona askoren ustez, herritarrek ez dute harrera egiteko arazorik izaten; aitzitik, sistemak berak eta boterean dauden pertsonek sortzen dituzte arazoak. Iritzi hori dutenen esanetan, **herritarrek elkartasuna adierazten diete pertsona migratzaileei eta harrera ona egiten diete; alabaina, sistemaren eta immigrazio-politiken helburua da zatiketa eragitea eta harrerari zailtasunak jartzea**. Honela azaltzen dute Gustavek eta Samuelek:

> "Immigrazioaren arazoa ez da hartzen gaituen auzotarra; gu, pertsona migratzaileak, ez gara arazoa. Haiek dira arazoa, zatitzen gaituen jendea (politikariak). Ustelkeriaz eta diskriminazioz beteriko sistema da sistema hau. [...] Politikariak ez dira gurekin bizi. Zuek zarete, herritarrak, gurekin bizi zaretenak; zuek hartzen gaituzue, zuek onartzen gaituzue. [...] Haiek aurrekontuak eta aurrekontuak dituzte, dirua jaten ari dira immigrazioaren izenean, ba al dakizu? Eta gero gaizki esaka aritzen dira pertsona immigranteen kontura; baina, finean, zuek hartzen gaituzue" *(Gustave)*

> "Aldatu egin da migrazio-politika. Jendeak ez du hitz egiten pertsonek beren jatorriko herrialdean pairatzen duten minaz; orain ez dugu hitz egiten han bizi duten sufrikarioaz eta miseriaz. [...] Orain mafiaz hitz egiten dugu, negozio hori deuseztatzea Europaren geroaren giltza delakoan. Baina egiaz bizi dugu sufrimendu handia. Herrialde guztietara duintasunez sartzeko aukera izan behar da [...]. *(Samuel)*

Antzeko tonua darabil Arantzazuk, baina Europari eta egungo migrazio-politikei begiratzen die. Bere bizipenetan oinarrituta egiten du hausnarketa, eta gogoan du zer-nolako garrantzia izan zuen euskal erbesteratuentzat herrialde latino-amerikarretan izan zuten harrerak; alde horretatik, uste du irakaspen hori ikasi behar duela Europak, harrera onak egiteko.

> "Betebehar bat du Europak. Munduko bi gerra sorrarazi ditu. Gatazka askotan parte hartu du Europak, eta nahierara banatu du Afrika; beraz, betebehar bat du Europak. Begiratu Amerika. Ez zuen jendea hartzeko obligaziorik, europarrek inbaditu zuten XVI. mendean, baina hartu egin gintuen, oso ondo hartu ere. Europak betebehar bat duela uste dut, oso betebehar handia, kaltetu dituen herriekin." *(Arantzazu)*

4.2. GIZARTEAREN AITORTZA (BIZITAKO HISTORIAREN AITORTZA; GATAZKAK DAUDELA AITORTZEA; GATAZKAK ETA HORIEN ARRAZOIAK IKUSARAZTEA)

Aurreko puntuan adierazitakoaren ildo berean, **elkarrizketatu ditugun pertsonek (eta, batik bat, pertsona errefuxiatuek) azpimarratzen dute funtsezkoa dela beren erbesteratze behartuaren arrazoiak ikusaraztea**. Gizartearen aitorpen edo onarpen hori gabe, pertsonek eta erakundeek ezin dute abegitsuak eta zuzenak izan asiloa ematen duen herrialdean.

Alde horretatik, pertsona batzuek azpimarratzen dute nekez uler dezaketela zergatik baztertzen edo diskriminatzen dituzten oraindik, Euskadin urteak daramatzaten arren eta gizarte berean elkarrekin bizi diren arren. Ez dute ulertzen zergatik bertakoek ez duten izan nahi beren jatorriko herrian bizi den egoera latzaren berririk, eta zergatik ez duten jakin nahi zergatik erbesteratu behar izan duten.

> "Bertako jendeak ulertu behar du zergatik urruntzen diren maite dituztenengandik. Zergatik irteten den jendea bere lurretik, gerrak eta indarkeriak bultzatuta, edo bizitza hobea iritsi nahian. […] Jendea kontzientziatu behar da, immigrazioaren zergatiak uler ditzan." *(Hady)*

> "Bizitza oso gogorra da han, eta jendeak, maiz, ez du ulertzen zergatik irten behar duten handik. Bizipen asko daramatza pertsona bakoitzak soinean. Beti esan dut nirea ez dela hain egoera larria." *(Amina)*

Baztertzeko jarrera hori ulertzeko zailtasuna handitu egiten da ikusten dutenean pertsona errefuxiatu askok, atzerritar izate hutsagatik, maila apaleko lanak soilik lortzen dituztela, hala nola garbiketa-lanak edo adineko pertsonak zaintzekoak. Egoera horretan, **gutxietsi egiten da pertsona horietako askoren prestakuntza eta/edo eskarmentu profesionala**. Amina da horren adibide argia: goi-mailako ikasketa akademikoak dituen arren eta Euskadin doktoretza bat ikasten ari den arren, gizartean baztertua izan da zenbaitetan, eta ezin izan du bere ikasketa-mailari dagokion lanik aurkitu.

Horren ondorioz, **pertsona errefuxiatu guztiek aho batez adierazten dute funtsezkoa dela, erbesteratzearen arrazoiak azaltzeaz gain, beren trebetasunak, eskarmentua eta prestakuntza profesional eta teknikoa ikusaraztea**. Behin eta berriz nabarmentzen dute horrek onura dakarkiela bi aldeei: aterpea ematen duen gizarteari eta pertsona errefuxiatuei. Izan ere, pertsona errefuxiatuek beren bizi-maila hobetzeko, garapen profesionala izateko eta baliagarri sentitzeko aukera izango dute, eta, aldi berean, hartzen dituen herrialdearen garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuko dute.

> "Sentikortze-lanaren alderdi bat izan behar du: balio dugula, ahaldunduta gaudela; baina enpleguak izateko bitartekoak jar ditzatela gure esku. Eragin handia du horrek bigarren belaunaldian. Hau diote gure alabek: ´nire gurasoek ikasketak amaitu arte aritu baldin badira eta aurkitu ez baldin badute, zertarako ikasiko dugu? Karrera amaitzean, zaintzaile izango gara azkenik´.
>
> Horren alde egiten ari gara (nik lan egiten dudan erakundean); ez dugu nahi zaintzaile-lanetarako sailka gaitzaten. Zubi ireki gehiago nahi ditugu. Eta foru-aldundiaren, Lanbideren eta udalen programen bidez atzerriko bi edo hiru unibertsitate-ikasle kontratatzeko aukera ematea enpresei, zer ekarpen egin dezakegun ikusteko. Baina tresnak ematen ez baldin badizkigute, oso zaila da hori lortzea." *(Amina)*

Elkarrizketatutako pertsonek azaltzen dute, erbesteratzearen arrazoiak ikusaraztearekin batera, **herritarrak sentikortzeko eta kontzientziatzeko lana egin behar dela. Lan horren premia nabarmentzen dute orain, Europa eta lider europarrek migrazioak kriminalizatzeko joera ageri dutenean**. Errefuxiatuak hartzen dituen gizarteak gogoan izan behar du egoera horiek bidegabeak direla eta min handia dakarkiela pertsona errefuxiatuei eta beren familiei. **Lan itzela dago egiteko**.

> "Sentikortze-lanari ekiteko, pobreziaren aurka egitea da onena. Europako agintariak sentikortu behar dira, Afrikan espoliazio-politikarik egin ez dezaten. […] Europarrak, Afrikara joaten direnean, nahi dutena hartzen dute, nahi dutena egiten dute. Orduan, pertsonen zirkulazio askea baimen dezatela. […] Pertsonak gose diren bitartean, gatazkak bizi dituzten bitartean eta emakumeak bortxatzen dituzten bitartean, erbestera joango dira, bake bila. Eskubide bat da bakea.
>
> […] Ezer gabe bizi direnek saltatzen dute hesia, ezertxo ere ez dutenek. Ezer ez dutenek egiten dute igeri. Zerbait dutenek dirua ordaintzen dute pateran joateko, autoa ordaintzen dute..." *(Gustave)*

4.3. AITORTZA JURIDIKOA ETA INSTITUZIONALA: BIZI-PROIEKTUAK BERREGITEKO BABES ETA LAGUNTZA SOZIALA

Errefuxiatu-estatusaren aitortza juridikoa funtsezkoa da pertsona errefuxiatu guztientzat; batik bat, beraien egoera babesteko xedea duen aldetik. Ondorio batzuk ditu errefuxiatuaren estatusa eskuratzeak. Lehenik, **estatu espainiarrak aitortzen du giza eskubideen urraketa bat gertatzen dela pertsona errefuxiatuaren jatorriko herrialdean, eta aitorpen hori**, Rosario eta Amparo moduko aktibistentzat, **indar handiko erreparazioa da**.

> "Niretzat, erreparazio modu bat izango litzateke errefuxiatuaren aitortza juridikoa jasotzea; baina nire egoera aitortu baino, nire jatorriko herrialdeko gobernuak giza eskubideak urratzen dituela aitortuko luke gobernu honek. Gobernu hura egiaz giza eskubideen bortxatzailea dela aitortuko luke, baina oraindik harremanak ditu harekin, muin ematen dio eskuan eta zoragarria dela esaten dio. Errefuxiatu-estatusaren aitorpena jasotze hutsa baino erreparazio handiagoa izango litzateke hori niretzat." *(Rosario)*

Eta funtsezko bigarren eskaera da pertsona **errefuxiatuaren estatusa eskuratzeko prozesua oraingoa baino irekiagoa, arinagoa eta argiagoa izatea**. Elkarrizketatutako pertsona ugarik uste du prozesu hori oso luzea eta nekagarria dela estatu espainiarrean: oso luzeak dira itxaron-denborak; hasierako babes bat ematen zaie, baina ezetsi egiten zaie gerora asilo-eskaera; ezesteko prozedurak eta arrazoiak ez dira argiak, eta kontraesankorrak ere izan daitezke, etab. Horrek nahasmendu, neke eta etsipen handiak sortzen ditu, eta, maiz askotan, eskatzaileek bertan behera uzten dute prozesua.

> "Ezetz esan diote (nire asilo-eskaerari), Ekialdeko gerraren arazoan zentratuta daudelako. Baina Kongoko Errepublika Demokratikoaren arazoa ez da Ekialdeko gerra soilik. Ekialdeko gerratik ihesi ari den jendeak ere ez du asilorik eskuratzen. Nork ez du arazorik gobernuarekin? Ez dugu hitz egiteko eskubiderik, ezin dugu iritzirik eman, ezin dugu ezer ere egin. Orduan, asiloaren kontu horretan, ez dakit zer egoeratan eta zer baldintzekin onartzen dituzten eskaerak. Frogak falta zituztela esan zidaten lehen aldiz eskatu nuenean. Deitu zidaten bigarren aldian, frogak eraman nituen. Eta ezetz esan zidaten. Ezetz beti! Izugarria da. Jarri nuen errekurtsoarekin… ez dut inongo itxaropenik. Geldiarazi egiten dituzte errekurtsoak, edo ez dakit. Ez dut ezertxo ere ulertzen." *(Augustine).*

Maiz egiten den beste erreparazio-eskaera bat da **aukera-berdintasuna ematea pertsona errefuxiatuei**, haiekin diskriminaziorik ez egiteko eta haien bizimodua ez zailtzeko aterpea ematen duen herrialdean. Oraingoa baino ahalegin politiko eta instituzional handiagoa egin behar da, lehen unetik, pertsona errefuxiatuak hartzeko politika berariazkoak egin eta datozen pertsonei eskubide osoko herritartasuna eskaintzeko, alderdi ekonomiko, politiko eta kulturalean.

Pertsona erbesteratuen eta haien ondorengoen esanetan, adiskidetzea, amnistia[12] eta memoria historikoaren lanketa egokia dira erbesteratzeak dakarren minari aurre egiteko mekanismoak.

> "Amnistiaren eta demokraziaren lorpenak nire aitaren moduko pertsonei esker iritsi zirela uste dut, eta ez lorpen horiek bereganatu nahi dituztenei esker. Nire aitaren

12 Hau da amnistiaren definizioa: "pertsona batek edo pertsona-talde batek duen erantzukizun penala iraungitzea dakarren berme juridikoa. […] Amnistiak dakarren ondorioak eta zigorrak bertan behera uztea lege-xedapenen bidez egiten da. Amnistiak errefuxiatuen borondatezko itzuleran lagun dezake errespetuz eta behar bezala egiten bada (adibidez, pertsona bat diktadura-gobernu bateko oposizioan parte hartzeagatik jazarri eta zigortu dutenean eta gobernu horrek boterea galdu ondoren pertsona horri amnistia ematen diotenean)." Kontsultatu, CEAR-Euskadi, Asiloari buruzko hiztegia, hemen eskuragarri: http://cear-euskadi.org/diccionario/amnistia/

moduko milaka lagunen lorpena da. Eta uste dut belaunaldi horretako pertsona gehien-gehienak adiskidetzearen alde zeudela." *(Igor)*

"Nire ustez, eroritakoei egindako monumentuak kendu eta bide-bazterretako gorpuak erreskatatu behar dira; funtsezkoa dela deritzot. Eta erbestera nor joan zen jakin behar da ondoren, [..]zerrenda horiek erreskatatu behar dira. Non dago jende hori, zergatik kendu zitzaizkien etxeak? [...] Hori berrikusten ez dugun bitartean, gaizki egindakoak izan zirenaren kontzientziarik ez dugun bitartean, berriro egingo ditugu noizbait. Ez dago erreparaziorik Molak eta Sanjurjoko hilarri itzelak baldin badituzte eta bide-bazterretan gorpuak pilatzen baldin badira. [...] Hilobietan nahi ditut bide-bazterretan hilik dirauten guztiak, memoria bat izatea eta hil zirenen zerrendak argitaratzea. Munduko Gerran hildakoen zerrendak egin baldin badaitezke, Frantzian ikusi dudan moduan, zergatik ez da hemen desagertu ziren guztien zerrenda bat egingo?" *(Arantzazu)*

"Bide-bazterretan lurperatuta daudenak aitortzea lehenik; hori da lehendabizi egin behar dena. Familiek berreskuratu nahi dituzten horiek aitortzea eta duintasunez ehorztea; bada garaia. Eta aitortza egitea joan zirenei. Ari zaizkie egiten, baina unibertsitateko ikasketen mailetan bakarrik. Horien adibide dira Donostiako Hamaika-Bide elkartea, Bartzelonako Gexel taldea (Grupo de Estudios del Exilio Español), Aranzadi eta beste batzuk. (Beharrezkoa da) aitortza egitea jendeak ezagutzen ez dituen intelektual horiei, itzuli direnei edo hartu zituen herrialdean geratu zirenei, ez baitzaie behar adina aitortu. Hainbeste daude erreparazio-beharrean..." *(Ana Mary)*

4.4. ESKUBIDEAK ESKURATZEKO AUKERAK

Elkarrizketatuak izan diren **pertsona errefuxiatu** guztiek argi eta garbi adierazten dute **funtsezkoa dela hartzen dituzten herrietako pertsonen baldintza berdinak izatea lanpostuak eskuratzeko**. Egoera horretan, **ez dira esplotatuak izango eta bertakoen laneko onura eta eskubide berdinak izango dituzte.**

Alde horretatik, emakume askok esaten dute zailtasun handiak izaten dituztela lana aurkitzeko, eta **prekarietate ekonomikoa eta langabezia-egoerak bizi dituztela**. Horrek guztiak, azpimarratzen dute, zaildu egiten du hartzen dituen herrian gizarteratzea.

"Pertsona errefuxiatuen arazo handi eta orokor bat da ez dugula lanik aurkitzen, eta, aurkitzen dugunean, esklabuen lana izaten dela." *(Leila)*

"[...] etxeetan aritzeko lanak aurkitu ohi ditut, baina derrigorrean egin beharreko lanak izaten dira, familiarekin dudan konpromisoagatik, baina lan horiek ez didate hazteko aukerarik ematen. Etxeetan egiten dena lan eskergabeetako bat da, gainera. Ez diot duina ez denik, duina baita, duintasunez eskuratzen baituzu bizibidea. [...] Baina edozein arrazoirengatik, edo behar ez zaituztelako, esaten dizute: 'ez etorri bihar'. Lan horrek ez zaitu erabat babesten: kotizatu arren, ez dizute subsidiorik ematen, ez duzu langabezia-sarirako eskubiderik, gerorako kotizatu baino ez duzu egiten. Lan eskergabea da alde guztietatik, babesgabea." *(Amina)*

Erregularizazio administratiboa da eskubideen eremuan egiten duten beste eskaera nabarmenetako bat, hau da, **identifikazio-agiriak legezko egoeran izateko eskubidea**. Finean, eskatzen dute agirien eskurapena eskubidea izatea, eta ez aparteko edo salbuespenezko egoera bat, sufrimendua, ziurgabetasuna eta injustizia dakartzana. Elkarrizketatutako pertsona gehienek aitortzen dute hori dela asiloko herrialdean gainditu behar den oztopo gaitzenetako bat, hura izaten baita gainerako eskubide guztiak eskuratzeko abiapuntua.

> "(Nahiz eta) gaitasunak izan, ezkutuan jarraitzen dut. Gaitasun horiek ikusi gabea da jende asko. Baina paperak izanez gero, gauza asko froga ditzaket; eta ez neuk bakarrik, baita pertsona etorkin askok ere. Dohain askotako pertsonak gara." *(Gustave)*

> "Eskubide jakin batzuk izatea onuragarri da jendearentzat, eta norberak amesten duena topatzen laguntzen du." *(Hady)*

Era berean, **etxebizitzaren eskurapena eskubide garrantzitsua da**, eta irizten dute pertsona errefuxiatu guztiek ziurtatuta izan behar luketela eskubide hori. Hala ere, Leilak eta Samuelek salatzen duten moduan, gai horretan handia da babesgabetasuna.

> "Une batzuetan, non bizi jakin ezinik ibili nintzen. [...] Gure bizitzarengatik ordaindu ondoren, ez zintzaigun ezertxo ere geratzen. Eta nirearen moduko herrialde batetik baldin bazatoz, han ezin baitzaitu inork lagundu, eta kalean ikusten baldin baduzu zeure burua, oso zaila da. Hemen falta ditugu eskubide horiek. Bizitzeko leku batekin eman beharko litzateke asilo politikoa, edo gela batekin gutxienez. Baina hemen ez dute halakorik ematen, hemen ez duzu eskubide hori, eta izan behar genuke." *(Leila)*

> "Aterpea izateak segurtasuna eta duintasuna dakarkio norberari. Oso lagungarri da, era berean, herrialderen batean legezko egoeran izatea. Baina uste dut, babestuta egoteko, etxe duin bat eta lan bat izan behar direla." *(Samuel)*

Azkenik, **tituluak homologatzeko erraztasuna izatea** da, pertsona errefuxiatu batzuentzat, asiloko herrialdean beren lanbidean aritzeko eta lan-dinamiketan eta dinamika sozioekonomikoetan murgiltzeko bidea. Alde horretatik, iritzi dute beren titulua homologatuz gero, aukera izango dutela ikasi duten horretan edo aurrez landu duten horretan lan egiteko, eta, ondorioz, prekarietate-egoeratik irten eta hartu dituen gizarteko partaide aktiboak izateko.

GOLFO

ASILOA, ITXAROPENERAKO ITSASONTZIA

Agiri honen atarian, asiloa itxaropenerako itsasontzia dela adierazi digute Rigoberto Jararen hitzek. Norberaren bizitza berregiteko leku seguru bat topatzeko itxaropena, bizitakoa gainditzekoa, noizbait etxera bueltatzekoa eta indarkeria eta miseriarik gabe bizitzekoa. .

Maletak hartu, beren etxeak itxi eta ezagutzen ez duten lekuren batera joan beharraren bizipen mingarria bizi behar izan dute ikerlan honetan parte hartu duten pertsonek. Atzean utzi behar izan dituzte beren etxekoak, lagunak, paisaiak, ohiturak eta lanbideak. Pertsona horiek guztiek adierazi dute erbesteratzeak deserrotze iraunkor bat dakarrela eta malenkonia dutela une oroko bidelagun. Erbesteratzeak markatu egiten du pertsonen eta familien historia, eta ez dago ahazterik

Mina eta ziurgabetasuna dira bidaia horren ezaugarri nabarmenak, baina baita erresilientzia ere, gizakiak aurrera egiteko eta bere bizitza berregiteko duen gaitasun itzela. Elkarrizketatuak izan diren pertsonek zenbait estrategia erabili dituzte beren bizitza berregiteko. Egoerari aurre egiten laguntzen duten elementuetako batzuk dira, besteak beste, utzitako herriarekin lotura duten erakundeetan eta esparruetan parte hartzea, harrerako familien eta gizarte-sarearen laguntza, bizilagunak, elkartasun-erakundeak eta erakunde feministak. Harrerako gizartean txertatzen laguntzen dute elementu horiek, baina oso lagungarri da, era berean, Estatuak errefuxiatu-izaera aitortzea eta beraien eskubideen erabilera erraztea.

Gainerako gizakien berotasuna asiloaren funtsezko osagaietako bat da. Hartu zituzten herrietan aurrera egiteko behar zuten harrera eta besarkada jaso zuten orain urte batzuk erbesteratu zirenek. Gaur egun etorri direnek adierazten dute ez direla gauza bera norbait hartzea eta norbaiti ostatu ematea, bizilagun izan behar baita harrera egiteko. Ondoan bizi denarekin harreman horizontalak egitea da.

Pertsona errefuxiatuak eta migratzaileak kriminalizatzen diren garaiotan, inportantea da gure herriak orain urte gutxi bizi izan zuena gogoratzea. Memoria partekatu hauek gaur egun babes bila datozenak gizatasun handiagoz hartzeko laguntza izatea nahi dugu. Erabil dezagun memoria, asiloak gaur zer esan nahi duen ulertzeko. Gu ere erbestera joan beharrean izan ginelako, ongi etorri errefuxiatuak.

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko **Errefuxiatuen**
Laguntzarako Batzordea

Gernika Gogoratuz
Bakearen Aldeko Aztertegia
Centro de Investigación por la Paz
Peace Research Center